

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2017-07-28 OSTIRALA / 607. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



## Mugarri izateko bidean

Atzo hasi eta igandera arte, Hatortxu Rocken hogeigarren edizioa ospatuko da Lakuntzan / 11-12

#HTXROCK20

**Uharte Arakilgo Artzain Egunak 50 urte beteko ditu abuztuko azken igandean / 5-7**

**Mila langabetutik behera zortzi urtetan aurreneko aldiz. %60 emakumeak dira. 45 urtetik gora, erdia / 2**

**Erreleboa Sakanako Mankomunitatean. Aitor Karasatorreren lekukoa hartu du David Orozek / 8-9**

**Maialen Aramendia junior mailako Nafarroako eta Euskadiko txapelduna / 25**

**Juanjo Olasagarrerekin Poz aldrebesa azken liburuaz hizketatu gara / 30-31**

# HTXROCK 20

## musika baino gehiago

### OSTEGUNA 27

17:00-19:00 NAIZ outlet (NAIZ Gunean)  
18:30 Hasiera ekitaldia (Herriko plazan)  
19:00 Kalera Kalera martxo amaiera  
19:15 SAKATU ELEKTROTXXARANGA

### OSTIRALA 28

08:30 Mendi martxa: Aralar-Arangun 968m (Herriko plazan)  
12:00 HITZALDIA: Etxerat eta Presa eta Senideen Aldeko Herri Ekimenak (Kultur etxean)  
16:30 FACU DIAZ "Pido perdón" monologoa (NAIZ Gunean)  
19:00 TTEK ELEKTROTXXARANGA

### LARUNBATA 29

08:30 Mendi martxa: Berriain 1.494m (Herriko plazan)  
10:00 Graffiti erakustaldia egunean zehar Goztetxe parean  
12:00 HITZALDI INTERNAZIONALA: Presa Politikoa eta gatazkaren konponbidea. Kolonbia, Irlanda, Palestina eta Euskal Herria (Kultur etxean)  
13:00 Emakumeak eta Rock-a hitzaldia (NAIZ Gunean)  
17:00 Negak (Los Chikos del maíz) Arnaldo Otegi elkarrizketatuko du (NAIZ Gunean)  
19:00 ZO-ZONGO! Perkusio taldea  
21:00 ZO-ZONGO! Perkusio taldea

### IGANDEA 30

10:45 Artisau eta ekoizleen azoka egun osoan zehar (Mikel Arregi Kalea)  
11:00 Hour Txokoa Berriain gunean  
Tailerrak (Dindaila), puzgarriak, igerilekuak...

### 13:00 BERRIAIN GUNEA

## nahikoa da... Etxera

DISPERTSIOAREN AURKARI ERITZAI NAZIONALA

14:00 Herri bozkaria plazan  
15:00 Irrien Lagunak (NAIZ Gunean)  
Euskararen taupadak ikuskizuna



Kisugileak teilatuan lanean.

# Mila langabetutik behera jaitsi gara

Garagartzaroa lana bilatzeko izena emanda zeuden 959 sakandarrekin despeditu genuen. Aurtengo aurreneko sei hilabeteetan % 17,89ko jaitsiera izan da. Hamar langabetuetatik sei emakumezkoak dira. 45 urtetik gora dituzte langabeen % 51,09

**SAKANA**  
2009ko martxoan Nafar-Lansarek 983 langabe zenbatu zituen Sakanan. Ordurako finantza-krisiak eragindako enplegu suntsiketarik eritimo bizia zuen ibarrean, eta hala segituko zuen hurrengo urteetan, 1.000 eta 2.000 langabetuko markak gaindituz. Ekonomia jarduera pixkanaka hobera egiten ari den adierazlea da garagartzaroa 959 langaberekin ixtea. Nafarroako populazioaren %3,16 gara sakandarrak eta langabeziari dagokionez, % 2,67.

Aurtengo lehen sei hilabetekean langabezia %17,89 jaitsi da; 209 sakandar atera dira zerrendatik. Zenbat eta langabetu gutxiago izan, orduan eta nabariagoa da emakumezkoek lana opatzeko duten zailtasuna. Urte erdian hiru puntu egin du gora haien langabeziak eta, dagoeneko, lana bilatzen ari diren hamar sakandarretatik sei emakumezkoak dira. Adinari dagokionez, erdiak baino pixka bat gehiagok 45 urte baino gehiago dituzte. 25 eta 44 urte artean dituzte lan bila daudenen % 38,06 eta gainontzeko %

10,84k 25 urte baino gutxiago dituzte.

Sektoreka lan eskaera gehienak, % 62,57, zerbitzuen arloan lanpostua bilatzeko da. Industrian lan egin nahiko lukete lan eskatzaileen % 22,63k. Kopurutan urrunago daude eraikuntzako % 4,17 eta lehen sektoreko % 1,88ko eskaerak. Aurretik lan egin ez eta estreinako lanpostua lortu nahi dutenak % 8,76 da.

### Kontratazioa

Urte erdian Sakanan 4.109 kontratu sinatu dira; % 51,86k (2.131)

## 2017ko 1. sei hilabetekean bilakaera

Udalerriak	Guztira	Guztira	Langabeziaren %	Aldea urte hasierarekin	
				2017-01-01	2017-06-30
<b>Altsasu</b>	543	482	50,26	-61	-11,23
<b>Arakil</b>	43	35	3,65	-8	-18,60
<b>Arbizu</b>	51	35	3,65	-16	-31,37
<b>Arruazu</b>	4	2	0,21	-2	-50,00
<b>Bakaiku</b>	15	7	0,73	-8	-53,33
<b>Ergoiena</b>	14	5	0,52	-9	-64,29
<b>Etxarri Aranatz</b>	127	90	9,38	-37	-29,13
<b>Irañeta</b>	5	5	0,52	0	0,00
<b>Irurtzun</b>	152	121	12,62	-31	-20,39
<b>Iturmendi</b>	16	18	1,88	2	12,50
<b>Lakuntza</b>	53	43	4,48	-10	-18,87
<b>Olatzagutia</b>	83	73	7,61	-10	-12,05
<b>Uharte Arakil</b>	33	20	2,09	-13	-39,39
<b>Urdiain</b>	21	13	1,36	-8	-38,10
<b>Ziordia</b>	8	10	1,04	2	25,00
<b>Sakana</b>	1.168	959	100,00	-209	-17,89
<b>Nafarroa</b>	40.045	35.938	3.747,45	-4.107	-10,26
<b>Generoa</b>					
Gizonezkoak	503	383	39,94	-120	-23,86
Emakumezkoak	665	576	60,06	-89	-13,38
<b>Adina</b>					
<25	124	104	10,84	-20	-16,13
25-44	452	365	38,06	-87	-19,25
>=45	592	490	51,09	-102	-17,23
<b>Sektoreak</b>					
1. sektorea	22	18	1,88	-4	-18,18
Industria	297	217	22,63	-80	-26,94
Eraikuntza	63	40	4,17	-23	-36,51
Zerbitzuak	708	600	62,57	-108	-15,25
Aurretik lanik gabe	78	84	8,76	6	7,69

gizonezkoen sinadura dute eta gainontzeko % 48,14k (1.978) emakumezkoena. Azken horien kontratuak laburragoak izanen dira, haien langabezia urte erdian % 13,38 jaitsi delako, gizonenak hamar puntutan

baino gehiagoan behera egin duenean. Bestalde, sinatutako kontratuen % 93,21 hasieratik aldi baterakoa zen (3.830). Aurtengo lehen sei hilabetekean mugagabe bihurtu diren kontratuak % 3,77 izan dira (155)



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com




Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

eta hasieratik mugagabe ziren % 3,02 kontratu sinatu dira (124).

Sektoreka ia kontratu guztiak industria eta zerbitzuen sektoreetan izan dira. Industriak kontratuen % 48,28 (1.984) egin ditu eta % 47,65 (1.958) zerbitzuek. Eraikuntzan aritzeko kontratuak % 3,21 izan dira lehen seihilekoan (132). Azkenik, abeltzaintzan aritzeko kontratazioak % 0,85 izan dira (35). Sakanan egindako kontratazio guztiak Nafarroako % 2,31 dira.

Altsasuarrek kontratuen % 43,56 sinatu badituzte ere, herri langabeziak ez du tamaina horretako jaitzierarik izan. Kontratuen % 12,41k eta % 12, 27k lakuntzar eta irurtzundarren sinadura du. Haien atzetik Etxarri (% 7,03), Arbizu (% 6,62), Olatzagutia (% 5,18), Uhartete (% 4,67) eta Urdiain (% 4,45) daude.



Odol-emaile bat autobusean odola ematen.



## Adonako ordezkariak

- **Irurtzun** Luis Sarasola Gorriti.
- **Uhartete Arakil** Jose M<sup>a</sup> Ustarroz Razkin.
- **Lakuntza** Uxua Garzandia Ojer.
- **Arbizu** Migel Angel Reparaz Razkin.
- **Etxarri Aranatz** Ignacio Lopez de Sabando Ezkerra.
- **Urdiain** Txomin Goikoetxea Galarza.
- **Altsasu** Maite Mazkieran Apestegia.
- **Olatzagutia** Patricia Fernandez Ganuza.
- **Ziordia** Juan Jose Calvo De La Fuente.

## Garapena

Herria	Guztira	Gizon	Emak.
2009/06	1.230	619	611
2009/12	1.342	630	712
2010/06	1.438	666	772
2010/12	1.500	672	828
2011/06	1.505	698	807
2011/12	1.603	764	839
2012/06	1.661	794	867
2012/12	1.864	924	940
2013/06	1.842	941	901
2013/12	1.770	898	872
2014/06	1.545	701	844
2014/12	1.639	801	838
2015/06	1.281	545	736
2015/12	1.252	551	701
2016/06	1.097	430	667
2016/12	1.168	503	665
2017/06	959	383	576

# 618 sakandarrek eman zuten odola 2016an

Aktiboan dauden odol-emaileek 1.068 emate egin zituzten joan den urtean. Haietatik % 98,5 emate normalak izan ziren, % 0,84 aferesidak eta % 0,66 auto-transfusioak. Odol-emate gehienak, % 75,84, autobusa herrira etortzen denean izaten dira

### SAKANA

Nafarroako Odol-emaileen Elkarteak, Adonak, jakinarazi digunez, Sakanan 2.310 odol-emaile zeuden 2016an; ibarreko populazioaren % 11,4. Osasun arazoengatik edo bestelako arrazoengatik kide diren odol-emaile guztiek ezin izan dute eman eta 2016an soilik 618 izan ziren, ibarreko emai-

leen % 26,75 (sakandarren % 3,05).

Elkarteak Nafarroan barna 77 ordezkariak ditu eta haietako 9 Sakanan daude. Ordezkariak batean herri bateko baino gehiagoko sakandarrak elkartzen dira, beraz. Bestalde, Urdiainera izan ezik odola emateko autobusa gainontzeko herri guztietara joaten da. Horregatik, urdiain-

darrek aldameneko herrietara edo Iruñera joan behar izaten dute odola ematera.

Azken bi urteetan 106 sakandar egin dira Adonako kide, 42 joan den urtean eta 64 duela bi. Horretarako, elkarteko autobusa herrietara etortzen denean hara joatea besterik ez dago. Egutegia [www.adona.es](http://www.adona.es) web orriari kontsultatu daiteke. Sakanara au-

tobusa honako datuetan etorriko da agorriean: 9an Ziordira (19:30-20:30) eta 16an Irurtzunera (16:45-20:30), Bestela, Nafarroako Ospitale Gunean dagoen odol-bankura joan daiteke.

## Lau ikastaro LH institutuan

Nafar-Lansarek antolatuta.

- **Zubi-garabiko gidari operadorea** irailaren 25ean hasita, arratsaldean.
- **Txirbil abiatze sistema** irailaren 9tik aurrera, arratsaldean.
- **Gaztelania** irailaren 22an hasiko da.
- **Matematika** 22an.

## Sakanako odol-emaileei buruzko datuak

Delegazioa	Bazkidetuak Emandakoak		Berriak		Emateak*		Emate normalak		Aferesidak		Autotransfusioak		Atzera botata		Busean emanda		Beste toki batean		
	2016	2016	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	
<b>Irurtzun</b>	244	74	4	23	124	201	119	196	4	5	1	0	33	29	66	133	58	68	
<b>Uhartete A.</b>	186	28	1	2	48	66	47	66	0	0	1	0	9	10	27	51	21	15	
<b>Lakuntza</b>	141	48	5	8	87	87	85	86	2	1	0	0	12	15	51	53	36	34	
<b>Arbizu</b>	138	33	2	5	48	51	48	51	0	0	0	0	8	11	36	33	12	18	
<b>Etxarri A.</b>	433	119	6	6	254	200	251	194	3	6	0	0	33	34	199	159	55	41	
<b>Urdiain**</b>	26	14	1	0															
<b>Altsasu</b>	798	231	18	15	393	454	389	452	0	0	4	2	76	86	335	395	58	59	
<b>Olazti</b>	271	63	4	4	106	81	106	81	0	0	0	0	27	12	89	68	17	13	
<b>Ziordia</b>	73	8	1	1	8	12	7	12	0	0	1	0	3	2	7	9	1	3	
<b>Sakana</b>	<b>2310</b>	<b>618</b>	<b>42</b>	<b>64</b>	<b>1068</b>	<b>1152</b>	<b>1052</b>	<b>1138</b>	<b>9</b>	<b>12</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>201</b>	<b>199</b>	<b>810</b>	<b>901</b>	<b>258</b>	<b>251</b>	
			26,75	1,82				98,50	98,78	0,84	1,04	0,66	0,17	18,82	17,27	75,84	78,21	24,16	21,79

\*Autobusa herrira urtean egindako bisita kopuruaren arabera aldatzen da. \*\*Urdiainera ez da autobusik joaten, beste delegazioetan ematen dute odola.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Musikaz blaiturik, gozatu oporraldia!

Udaldiaren ardatzean gaude. Guaixe, urte beteko plangintza burutu-ta, oporretara. Ongi irabazita! Beste batzuk, bueltan lanera. Niri dagokidanez, Euskadi Irratiko saio bati ideia lapurtuta, nire bizitzan tokitxoak duten hamar abesti gor berezita emanen diot sasoi honi amaiera. Hurbilenekoetatik hasita, opor aroari atea irekitzeko, bizipen atsegingarriak gogoratuz egitea ariketa egokia baita. Lehenengoa, "Zure aurrekari penalak", Anarirena. Ahots latz eta sarkorra. Sentimendu sakonak, pilularik lasagarriena. Bigarrena, "Quién me ha robado el mes de abril" Joaquín Sabinarena. Nola gertatu zitzaidan niri? Poeta bihurriaren pozik sentiarazteko abesti tristea. Berriki zait madrildarra gustagarri. Hirugarrena, "Oi Ama Euskal Herri" Benito Lertxundirena, Ahots grabe zarrastatua, Euskal Herriaren eta askatasunaren bardoa. Laugarrena, "Txorian Txori", Mikel Laboarena. Edozein egoeratan, hainbestetan abestua. Bosgarrena, "Parrandan", Takolo, Pirritx eta Porrotxena. Seme-alaben eta gurasoen gozagarri. Seigarrena, "The Show Must Go On", Queena. Norbaitek daki zertarako bizi garen? Bidaia luzeetarako laguna. Zazpigarrena, "Highway to Hell", AC/DCrena. Erraz biziz, aske biziz. Gitarren punteo zirragarriak! Gaua, parranda eta eromena. Zortzigarrena, "Egun batean Loiolan" Eganena. Hainbat plazetan maitasunaren pinpilinpauxaren dantzari lotuta. Bederatzigarrena, "Nikaragua Nikaraguita" Mejia Godoirena. Mojitoen eta dantzaldien artean, mundua aldatzeko adina indar genuela sinesturik. Hamargarrena, "Lepoan hartu ta segi aurrera" Pantxoa eta Peiorena. 'Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik, nor geran, zer geran aitortzeko!' Gaztetasuna, parranda eta borroka griña. Beste hamaika izan litezke, baina horiek berezita, musikaz blaiturik gozatu oporraldia!

## HARA ZER DIEN

### Oporrak

#### SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Edozeinek, edozein taldek egiten duen bezala, urtean zehar borrokan ibili garen jubilatuoek ere, atsedendaldian baten beharra sentitzen dugu. Zoritxarrez, bizi dugun egoerak ez digu aukera handirik eskaintzen etorkizun positibo bat amesteko eta zahartzaro duina eskuratu nahi badugu, saiatu beharra gelditzen zaigu. Eta hori egin dugu azkeneko 9 hilabete hauetan.

Hasiera batean, jubilatuei buruz iristen zitzaizkigun berriak ez ziren batere lasagarriak. Kezka nagusitzen joan zitzaigun. Jubilatuen kutxan gelditzen zen diruak

agortzen ari ziren; bazen, iazko Eguberrietako estra ordainduko ez zigutela iragartzen zuenik; pentsio pribatuen kanpaina sustatzeko ahaleginetan ibili ziren eta pentsio publikoen sistema zalantzan jarri.

Guk, gureari eutsi diogu: kontzentrazioak, manifestazioak, hitzaldiak, hedabideetan artikulatuak... Pentsio Sistema Publikoa defendatzeko. Zahartzaro duin bat bermatzeko ez dugu ikusten beste aukerarik eta hori ziurtatu nahi dugu, nola edo hala; baina, gure pentsioen ardura, Estatuaren ardura izan dadila. Handia izan da gai hau gizarteratzeko egin den

lana. Beharbada ez ditugu nahi hainbat emaitza jaso; mesfidantza, etsipena, konformismoa zabaldugegi daude gure artean.

Guk ez dugu etsi, eta, hasieran esan dugun bezala, atsedendaldian baten beharra sentituz arren, ez daukagu gaia erabat baztertzeko asmorik. Adi egongo gara, oporrak bai, baina borroka ere bai, baibaitakigu gaurko politikariak udako oporrez baliatzen direla ziria sartzeko edo adarra jotzeko.

Eta, bukatzeko, gomendio bat: aprobetxa ditugun oporrak gure biloben xarmaz gozatzeko, haien bizitasunak gartzetu egiten gaitu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.

Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak:

Foru plaza, 23 - 1. 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## GUTUNAK

### 8 hilabete

#### RUBEN IMAZ ALCAIDE

ALTSASU

Kalera noa, korrika egiteko zapatiletako lokarriak ondo estutu ditut eta alde zaharreko karraketan hasi naiz beroketak egiten. "Eeey, tio! Noraino zoaz?", Oihan da, taberna bateko terrazan dagoen mahai bihurtutako kupela alboan. Kafesne taza

utzi du amen batean eta ondora etorri zait. Nire korrikako erritmoa berehala harrapatu du eta, harrituta, esan diot:

"Kafesnea eztarrian izango duzu oraindik eta, nahi baduzu, itzarongo zaitut. Lasai joan arropa egokia janztera". "Ba!" berak, "berdin dio, horrelaxe ere ederki asko noa". Peñetako kontu eta komeriek,

pilotako entrenoei hurrekin eta *Yoseikan*-eko istoriotxoek bete dute Urdiaingo igerilekuetako langa ukitu eta bueltako betiko korrika-saioa. 8 hilabete.

"Beti berandu ibiltzen da, tontoak gara, ez dugu inoiz ikasiko!" Gaur partida eguna dugu Sadarren, beste behin ere. Larunbata da oraingoan eta Adurrek parranda egin du ostiralean, agerikoa da.

Mugikorretik, *Whatsapp* mezu mehatxatzailea: "Beno, gu bagoaz, ez zaitugu itzarongo! (haserre ikonoa)".

Inoiz ez dugu betetzen mehatxua eta azkenen milisegundoan, egoera gailentzen du Adurrek:

"Buuaa, tioo... A ze liada atzokoa!!! Kar, kar, kar!". 8 hilabete.

"Eeeiii, koder!!! Lagunduko Beasaineraino? Bertako

gatzetxeen soinu-ekipoa kargatu behar dut txoznan jarri ahal izateko". Jokin da. Irribarretsu dator, badaki *enbajada* ederrarekin datorrela, horrelakoa baita bera, eta, urduri dagoenean, *jokin-irria* ateratzen zaio. "Joder! Jokin! Orain ere horrela? Ezin dugu gerorako utzi?". Eta, azkenean, biok joan gara *furgoan* Etxegaraten behera. 8 hilabete.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea  
admin@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Kolaboratzaileak:

Larraitx Amadoz Lazkano  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Zuzentzailea: Idioia Artieda

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245

#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kiriolak@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK


# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Jose Maria Ustarroz, Aralar Mendi elkarteko atearen aurrean.

## Artzain Eguna, topalekua eta erakusleihoa

### JOSE MARI USTARROZ ARTZAIN EGUNEKO ANTOLATZAILEETAKO BAT

Artzain Egunaren 50. edizioa egingen da abuztuaren 27an. Festa gertutik ezagutzen du uhartearrak eta kontu asko esan dizkigu. Azken erantzunean eman du albistea

#### UHARTE ARAKIL

#### Artzain Egunak Uharte Arakil mapan jartzen lagundu du?

Bai. Dudarik gabe. Uharte hemendik kanpo, gehien, Artzain Egunarengatik ezagutzen da.

#### Nondik sortu zen ideia?

Lehendabiziko artzain txakur lehiaketa Gironako Pirinioetan egin zen, Ribes de Freser eta Nuria arteko herri txiki batean.

Hango albaiaria zen Agustin Franco Franco. Hark Ingalaterran halako probak egiten zirela jakin zuen eta han egitea erabaki zuen. Lehendabiziko proba egin zuen garaian, orduko hedabideetan atera zen, dudarik gabe. Oñatiko mendigoizale bat, beti mendi hauetan ibiltzen zena, irakurri zuen eta esan omen zuen: “gu beti men-

dian, artzain eta txakurren artean eta ez zaigu okurritu horrelako bat egitea”. Beraiek beti gauzak antolatzen ibiltzen ziren. Albaitariarekin harremanetan jarri eta hango artzain bat, edo bi, ekarri zituzten Urbiara. Inguruko artzainekin probak egiten aste bat egon ziren. Hartatik egin zen lehendabizikoa Oñatin. Urte hartan edo hurrengo urtean

zabaldu nahi izan zuten lau lurraldeetara. Nafarroan gehien ezagutzen zuten herria Uharte zen, Aralar eta Beriain mendiengatik. Bestalde, Hiriberrin Jose Agirrezabal albaiaria zegoen, Brinkolakoa. Haien laguna zen eta horrek erraztu zion hemen bidea egitea. Herria konprometitu zen lehendabiziko lehiaketa egitera, baino suerte txarrez, sutea izan zen egun hartan (1963, herriaren laurdena erre zen) eta gero sei urtez ez zen egin.

#### Aurtengoa 50.a izan beharrean...

56. edizioa litzateke. Bigarren edizioa egin baino lehen, hamarkada horretan, talde bat mugitzen hasiak ginen: “zerbait egin behar genuen. Elkarte bat egin behar genuen”. Taberna moduko elkarte bat ez; pentsatzen genuen hemen ez genituela prezioak jaitsi behar merkeago ateratzeagatik, baizik eta gauzak egin behar genituela: kultura aldetik, ekonomia aldetik, alde guztietatik...

#### Hortik Aralar Mendi elkarte?

60ko hamarkadaren erdia baino lehen mugitzen hasiak egon ginen. Nahiko buelta eman genituen. 1968an estatutuak eta aurkeztu genituen. Problema txikiren bat sortu zen, erredakzio eta beste gauza politikoren bat ere. 1969ko ilbeltzean onartuta etorri ziren eta lanean hasi ginen. Horregatik, kargu egin ginen Artzain Egunaz. (Elkar-teak gerra aurretik herrian zegoen futbol taldearen izena hartu zuen).

#### Hasiera-hasieratik zuen kargu zegoen Artzain Eguna?

Lehendabizikoan bigarren lerroan egon ginen, udalak egin zuen. Lehendakari izendatu genuena ere orduko Junta de Veintena-n (herriko zergadun han-

dienen batzarra) zegoen. Harekin batera kargu egin ginen.

#### Nolakoa izan zen 1968ko aurreneko edizio hura?

Uhartan jendetza handia izan omen zen batzokia mustu zuten egunean, errepublika garaian. Orduz geroztik Uhartan hainbeste jende ez zela egon esaten zuten. Idea egiteko.

#### Egun osoko egitaraua izan zen?

14 urtez arratsaldekoa izan zen. **Aurreneko ediziotik karteletako marrazkia bera da?**

Bai. Ez dugu lortu jakitea nork diseinatu zuen. Eginahalak egin genituen. Uste genuen Jose Mari Pastor, Artzai, zela. Berak esan zigun ezetz. Uste zuen hemen bizitutako eta lan kontuengatik Sevillara joandako bat zela. Ez dugu lortu jakitea.

#### Zer sasoi zeukan artzaintzak?

Orain baino artzain gehiago zegoen garai hartan. Harrezkerro, artaldeak handitu egin dira, baina artzainak gutxitu.

#### Behin bat antolatuta, jendeketa etorrita, segi behar, ezta?

Gu lehendabiziko urtean Oñatin egon ginen, antolakunde bat egin zen han. Buru-belarri sartu ginen hango zuzendaritzan eta gauzetan. Artzain txakurren probako hemengo txapelduna Oñatira joaten delako. Eta txapeldun eta txapeldun-ordea Euskal Herriko. Koordinatuta egon behar dugu, egutegia, datak, epaimahaia eta horrela...

#### 6. orrian segitzen du

### BIGARREN EDIZIOA EGIN BAINO LEHEN TALDE BAT ELKARTE BAT EGITEKO MUGITZEN HASI GINEN

Ostiralero  
**SAIOA**

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera  
**Metropoli forala**

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Jose Mari Ustarrozekin Artzain Egunaren 50. urteurrenaz
- Maialen Aramendia Euskadiko txapeldunarekin
- Juanjo Olasagarrerekin “Poz Aldrebesa” liburuz

107.3 FM  
**beleixe**

www.guaixe.eus-en ON LINE

## 5. orritik heldu da

**80ko hamarkadan aldaketak. 1981ean hasi zirenen Nafarroako ardi latxen esnearekin egindako gazta lehiaketarekin. Zergatik?**

Guk beti pentsatu genuen jendea urte batzuetan etorriko zela eta etortzeari utziko ziola. Jendea etortzen zen. Hedabideak. Gero eta interes gehiago, gero eta arrakasta handiago zeukan. Esan genuen: “festa hau egitea ongi dago, baina zerbait gehiago egin beharra dago hemen. Artzainek txakurrekin ematen duten ikuskizuna oso interesgarria da. Baina beste gauza batzuk badira”. Ordurako kanpoko arrazetako ardiekin norbait zerbait egiten ari zen. Eta gero, bestalde, du-darik gabe, ikusten zen mugak momentu batetik bestera zabalduko zirela. Hemengo artzainak jakzarriak zeuden.

**Nolaz, ba?**

Ilegalak ez ziren, baina alegalak. Osasun erregistrorik ez zuten. Hori egiten erakutsi eta lagundu beharrean salatu. Gu ez geunden batere ados. Hemengo abeltzaintzako jendearekin eta horretaz pixka bat arduratuta, kontzientziatuta zeudenekin harremantzen geunden. Gazta lehiaketa sortzea erabaki genuen, jendeak jakin zezan gure gaztak inondik etorriko ziren gaztak baino kalitate hobea zutela erakusteko eta, gainera, gurea dela. Lehendabiziko urtean ez genuen bai-menik lortu.

**Alegalak?**

Gure kasuan, nik uste, ilegaltasunean. Eskerrak hemengo alkatea, artzain familiakoa, horretaz pixka bat bazekiela. Baime-nik ez zigutela eman esan genion. Berak esan zuen: “hemengo arduraduna ni naiz. Nik dut ardura. Zuek egin eta norbaitek



Antolakuntzan aurretik 30 bat eta egunean 150 bat bazkide izaten dira lanean.

zerbait esan behar badu, nire-gana bidali”. Horrela egin genuen, pixka bat estalian, udaletxeko pleno gelan. Jendeak hura ikusi nahi zuen eta kasik kanpora botatzen gintuen. Haren arrakastak ere harritu gintuen. Hirugarren urtetik aurrera baime-na izan genuen. Laguntzaren bat ere biltzen hasi ginen.

**Jendeak, eta pentsa dut, artzainek ere erantzun zutela 1981ean?**

Pentsa ezazu nola zeuden gaztagileak: bi egun aurretik denei deika saltzera etortzeko. Ez ziren trebe izan etortzeko, pentsatzen zutelako Guardia Civilak hartu eta kartzelara eramanen zituela kalean gazta saltzeagatik. !

**Hori goizez eginen zenuen, ezta?**

Bai. Hor hasi zen eguna betetzen. Bigarren urtean, zer arrakasta zuen ikusi genuenean, artzai-

## ARTZAINAK KALEAN GAZTA SALTZEAGATIK KARTZELARA SARTUKO ZITUZTEN BELDUR ZIREN

nendako hori etorkizuna zela, beharrezkoa, estrategikoa zela. Eta esan genuen: hemen daukagun beste gauza bat da ardi latxa. Jendea hura gutxiesten hasia zegoen. “Ez. Gurea da. Hau mantendu egin behar dugu, eta hobetu”. Bestalde, beste elkarte batzuk, abeltzain-eta, hasiak ziren pixka bat babesten eta lan egiten. Ardi latxaren erakusketak eta lehiaketa egitea erabaki genuen. “Hauek ere jendeak ezagut ditzala”. Horrela hasi ginen eta bigarren urterako Nafarroako ardi latxaren erakusketa ofiziala da gurea eta lehiaketa nazionala da. Hori mugitu genuen, beharrezkoa ikusten genuen-eta: uzten bazen, jendeak ez zuen behar hainbat baloratu behar. **1983an izan zen hori. Bi urte aurrerago beldurrez zeuden. Erreakzio bat egon zen...**

Egun haietan hasia zen hain ezaguna zen Jose Antonio Otxandorena. Artzaina edo gaztagilea baino gehiago misiolaria izan zen. Osasun erregistroak eta lortzen lagundu zuen. Iparraldeko jendea laguntzera etorri zen,

aholkatzera. Jende asko mugitu ginen laguntzera. Hasi ziren pixkanaka-pixkanaka erregistroak-eta martxan jartzen, behar zen bezala legezatzeko.

**Garai bateko ohiturak legedi berrietara egokitzea izanen zen, ez?**

Bai. Egiteko modua, sistema batekin, zehaztasunez. Horretan ere asko lagundu zuen Iparraldeko apaiz batek: Mixel Lekuonak, Biriaturkoa. Gurekin hemen egon zen eta hainbat tokitan. Ardi genetikak landu zuen. Ikaragarriko buruargia zen, eta langilea. Gaztagileekin ere egon zen. Garai hartan jende asko mugitu zen hau aurrera eramateko eta han egon ginen. Uhartan bilera ikaragarri garrantzitsuak egin genituen Artzain Egunaren bezperetan. Jende askok parte hartu zuen. Jatorri izendapenak sortzeko ere, 80ko hamarkadaren azkenean.

**1987an, berriz, Nafarroako ardi-moztaileren txapelketa jokatzeko hasi zen.**

Ardiei ilea makinaz moztea ez zegoen oso sartuta. Ikusten genuen ardiarendako eta artzainarendako ikaragarriko abantaila zela makinaz moztea. Lauz-pabost minutu egon beharrean ardia lotuta, ardia lotu gabe eta ia-ia minutu batean lasterka ateratzea, ba, ardiarendako ona da. Promozionatzeko, jendeak ikus zezan hasi ginen.

**1992koa da Euskal artzain txakurren erakusketa.**

Ikusirik kanpoko arrazen presioa zegoela, azkenean, erabaki genuen gure artzain txakur lehia-

## HEMENGU ARTALDEA DA: ARTALDE BAT, FAMILIA BAT, GAZTANDEGI BAT, MENDIKO HERRI BAT

ketan bertako arrazek parte hartzea soilik. Gainera, erakusketa. Ez soilik artalde erabiltzen duten txakurrena, haiek defendatzen dituzten txakurrak ere jendeak ezagut ditzan. Erakusketan argi asko jartzen dugu euskal artzain txakurrak eta bertako arrazak, historikoki gure artaldeekin lan egin dutenak: gos de atura (ile luzeko txakurra, zuriketa, Katalunian estandari-zatu eta izena eman zioten), Labri motakoak eta Pettit Berger. **1994an ardi gisatuaren lehiaketa eta dastatzearekin hasi zirenen.**

Garai batean ardiak asko erabiltzen zen, etxeetan ere bai. Pixka bat baztertu egin genuen. Zergatik ez dugu baloratu behar ardi zaharra? Horregatik hasi ginen hori egiten.

**Buruan izan, baina oraingoz egitarauan sartu ezin izan duzuen ideiarren bat baduzue bueltaka?**

Artisau erakusketan kaikuak eta garai batean hemen erabiltzen ziren tresna horiek, horra ateratzen ez baditugu ahaztu behar ditugu. Horiek balio historiko eta etnografikoa dute. Ardo nafarra, taloak. Joan den urtean goitik behera heldu den gazta harrapatzeko Euskal Herriko lehendabiziko lehiaketa egin genuen. Aurten bi gaztarekin eginen dugu. Gazta nola egin den ere erakusten dugu (aurretik Goikoetxea eta Javier Beregaina aritu ziren, orain, Ricardo), gazta nondik heldu den ikusteko.

**Noiz hasten zarete Artzain Eguna prestatzen?**

Lehendabiziko pausoak urtea bukatu baino lehen egiten dira. Hilero pauso batzuk. Baina maiztetik aurrera, pauso handiak eman behar dira.

7. orrian segitzen du



# Amaya

Okindegi-gozotegia

Araia (Araba)  
945 314 572

Olazti  
948 468 755

Uhart-Arakil  
667 353 503

Etxarri-Aranatz  
948 461 660

Lantegia: Teileria Aldapa S/N  
Altsasu  
948 562 205

panaderia · okindegia

San Juan kalea, 50  
Altsasu  
670 389 017

BM-supermerkatua

Otadiako Kristo  
Deuna Plaza, 19  
Altsasu  
948 562,185

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
T. 948 468 026

## 6. orritik heldu da

**Antzeko beste egun edo proba batzuk izan dira beste herrietan, baina ez diote utsi. Zein da sekretua?**

Uhartarro kaskagor fama daukagu. Hori mantentzen dugu eta, gainera, erakutsi horrela dela (barrez). Halakoetan ez da hainbeste zer artista den pertsona bat, baizik eta jarraitzea. Batek esan zidan, zuzendaritzatik atera behar zela: "bi urtez juntan gutxi da. Lehendabiziko urtean ikasi dut. Bigarrean badakit nondik joan behar naitzen eta inork ez dit ezer esan behar. Hirugarren urtean nik nire zera guztia emanen nuke". Batengatik eta bestearengatik, segitu dugu.

**Hasieran artzainen topaleku zena, artzaintzaren erakusle bihurtu da?**

Lehenengoa mantendu, eta bigarrena ere bai. Ezagutzen ditugu artzainak urte guztian egun horretan bakarrik goizean atorra txuriarekin etxetik atera eta ohera horrekin joaten direnak. Beraien eguna dela esaten dute. Hemen, dudarik gabe, urtez urte egun horretan bakarrik elkar ikusten dute artzain asko daude.



Jose Mari Ustarroz, kartelarekin.

Ez bakarrik gure ingurukoak, baizik eta Euskal Herri guztitik etortzen dira. Guk uste ez dugula elkartu eta beraien zerak egiten dituzte. Uste duguna baino gehiago. Euskal Herrian egiten diren artzain txakurren lehiaketen antolakuntzan sartuta gaude, epaile bezala ere. Guk beti antolatzaile guztiei esaten diegu: 50 euroko dieta eman beharrean, eman 30 eta gonbidatu edo bazkaltzera edo

afaltzera". Elkarrekin egoteko. Batez ere, Euskal Herriko lehiaketa egiten denean. Haien lagunak etortzen dira eta haien artean zein elkarriketa eta zer... Badakigu askotan ardiak eta denak trukatu egin dituztela elkarrekin. **Globalizazioaren eta nazioarteko ekonomia itunen aurrean eredu hori defenda daiteke?**

Bai, eta etorkizunarekin, gainera. European onartuta dauden gure arauetan lehendabizikoa da ardi latxa dela bakarrik. Zergatik? Gurea delako, hemengoa delako eta inon gehiago ez dagoelako. Bestela, igual litzateke gazta hemen egin edo Zambian. Horrek bere berezitasuna du. Bigarren parte, inportantea: bere eragin soziala. Hemen ez dago makro-artalderik. Hemengo artaldea da: artalde bat, familia bat, gaztandegi bat eta mendialdeko herri bat. Filosofia hori ez dugu inola ere galdu behar. Horren alde borrokatzen gara hemen eta izendapenean. Hemendik kanpo eredu gara.

**50 urteko lan horrek aurrera begirako oinarria jarri du?**

Dударik gabe. Gazta hori munduko onena da? Igual bai. Baina

gurea da. Eta desberdina da. Beste gazta berdinek ez dago. Analisi guztiak egiten baditugu jakinen dugu hemengoa dela. Kanpo egindakoetatik desberdina da.

**Gaur egun zein da artzaintzaren egoera, argazkia?**

Gaurko artzaintza lanean ongi ari da. Behar den bezala prestatzen da. Ongi defendatzen ari da eta etorkizuna dauka. Gauza bat falta zaigu, eta Europatik ere indartu nahian ari dira. Tokiko gobernua bulkatzen ari dira: jende gazteari laguntzak ematea. Alde batetik, hasieran behar duen laguntza azkar ematea. Ez itxarotea lau urte pasatzera. Ohartu dira hau beharrezkoa dela egitea. Eta aurrerantz, kontuz, munduan nola daude lanpostuak? Heldu beharko diegu, baina ongi prestatuta eta jendea ongi bizi zeko.

**Aurtengo Artzain Eguna erdi prest?**

Oraindik lan asko dugu aurretik. Baina nik urte asko egin ditut hemen, adina ere, uste baino gehiago daukat, ekipo bat egiten ari da eta, bueno, belaunaldi aldaketa martxan dago.

**50ekin planto egingen duzu?**

Bai, garaia da. Ez da pertsona baten bizkarrean utzi behar. Talde ona ari da lanean. Horrek segituko du. Hemen ikusiko dugu elkar.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Argazki lehiaketa

Artzain Egunean egingo den lehen Argazki Lehiaketan parte hartzea gonbidatuta zaude. [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) web orrian sortutako atal berezian sartu eta zure argazkia igotzea bezain erraza da. Argazkiak igo ahala, haiek argazki galerian ikusgai jarriko dira. Zuen botoekin aukeratutako argazkiaren egileak bertako produktuen lote ederra eskuratuko du. Epaimahaiak, berriz, bi pertsonendako asteburuko egonaldia hotel batean eta asteburuko egonaldia Sakanako landetxe batean.

ZURE ALIATUA  
LORATEGIAN

**UDABERRIKO ESKAINTZA.** Bateria aukera zabala prezio onenean.

Pol. Ind. Zumurdiñeta, 6  
31820 - Etxarri Aranatz - Navarra  
asialda@gmail.com  
948 461 734 696 999 128

Pol. Ind. Akaborro, 19  
31860 - Iruztun - Navarra  
baizamotoretzarri@gmail.com  
948 500 392

[www.baizamotor.com](http://www.baizamotor.com)



David Oroz, eskuinetik hasita bigarrena, Mank-eko lehendakari berria. GUAIXE

## Sakanako Mankomunitateko lehendakaritzan erreleboa

Karasatorrek, berak hala eskatuta, presidente izateari utzi zion eta David Oroz Alonso da buru berria.

### SAKANA

Sei urte karguan eman ondoren, Aitor Karasatorre Mugurutzak Sakanako Mankomunitateko presidente kargua David Oroz Alonsori pasa zion atzo. Lakuntzako egoitzan egindako batzarrean Orozek aldeko 12 boto eta abstentzio bat bildu zituen. Mank-eko lehendakari-orde Ainara Aiestaranek Karasatorren lana eskertu zuen eta haren ondoan asko ikasi zutela gaineratu zuen.

EH Bilduk publiko egin zuen ohar batean Karasatorrek egindako lana "azpimarratu" du. Koalizioak Mank-ek "eskaintzen dituen zerbitzu eta kudeaketa eredu berri bat martxan jarri" duela nabarmendu du. Ziurtatu duenez, "beste fase bat hasiko da orain, egindako lanaren fruitu. Datozen bi urteotan Mank-ek etorkizuna eta eskaintzen dituen zerbitzuei heldu beharko die".

### Orain arteko lehendakariak

- **1987-1991** Jose Manuel Etxeberria Solis.
- **1991-1995** Manuel Ijuria Etxarri.
- **1995-1999** Migel Angel Zubiria Galartza.
- **1999-2003** Josema Manuel Leitza Razkin.
- **2003-2007** Gorka Ovejero Ganboa.
- **2007-2011** Migel Angel Zubiria Galartza..
- **2011-2015** Aitor Karasatorre Mugurutzak.
- **2015-2017** Aitor Karasatorre Mugurutzak.
- **2017-...** David Oroz Alonso.

# "Dakigunez, Mank-en orde berria sortuko da"

Sakanako Mankomunitatearen presidente eta Etxarri Aranazko zinegotzi izateari utzi die Aitor Karasatorre Mugurutzak. Sei urteen balorazioa egin digu eta bere ustez ibarreko erakundearen erronkak zein diren azaldu dizkigu

### SAKANA

#### Finantza krisiaren eraginak bete-betean jotzen zuenean hartu zenuen ardura. Zein zen panorama?

Momentu hartan okerrena izan zen gobernuarekin harremana. Behin eta berriz saiatuta ere geldituta zeuden inbertsioetarako partida guztiak, nahiz eta beharrezkok izan. Krisia zela-eta udalek ere ez zuten diru handirik. Genituen zerbitzuak mantentzen saiatu ginen; ez zen inbertsiorik egiten. Hori izan zen erronkarik handiena. Krisia zela-eta estrategia bateratua lantzen hasi ginen.

#### Oinarri batzuk jarri ziren orduan: Plan Estrategikoa edo Garapen Agentzia esaterako.

Ordurako eragile guztiak parte hartzen ez zuten garapen partzuergo bat zegoen. Adostasuna bilatu nahian, Sakantzen Saleak emandako ibilbidearen ondorioz, tresna berri bat behar zela ikusi zen: garapen agentzia, Mank-en SL bat bezala sortzea. Horri erantzuteko eta hartu ziren neurri guztiak aurrera eraman ahal izateko. Guri zegozkigun adostutako puntu guztiak bete genituelako eta gobernuak bere esku zeudenak bete ez zituelako. **Plan estrategikoaren eta garapen agentziaren ibilbideen zein balorazio egin duzu?**

Gaur egun indartsu ikusten ditut, baina dependentsia handiarekin. Gobernuak ematen dituen diru-laguntzen dependentsia handia dugu. Joan den urtean, lehenbizikoz, 250.000 euro izan ziren. Berandu iritsi ziren. Sinatu zirenerako urte erdia pasata zegoen. Aurten saiatu ginen askoz ere lehenago lotuta izaten, urtea beste modu batera hasteke. Baina egia esan, gaur egun, kexatu gaitzke: ia agorrilean gaude eta oraindik aurtengo diru-saila sinatu gabe dugu. Hitzez 360.000 euro ditugu. Joan den urtean baino diru gehiago onartu edo bideratuko den hitza, baina ez da gauzatu. Horrek egoera larrian jartzen zaitu: aurreratu behar dituzu bai dirua bai proiektuak, hitza duzu baina sinatu gabe. Ilusioa bai, diru kopurua igo da. Baina, bestetik, kezka; nola bideratu beste era batera hurrengo urterako aurretik lortzeko eta egoera kaxkar honetan ez ibiltzeko.

### "TOKIKO MAPAREN BERRANTOLAKETAREKIN ERAKUNDE BERRIA SORTUKO DA. EGUNGO ZERBITZUEKIN ZER?"

#### Erraustegiaren kokapena zehazten ez zuelako Nafarroako Hondakin Plana bertan behera gelditu zen Mank-en eta Sustrai Erakuntzaren ekimenez.

Aurreko legegintzaldi bukaeran izan zen. Gobernuak plan berri baten premia ikusi bai, baina ez zuen abian jarri. Iragarri zuen ez zuela errausketa aurreikusten, baina ezer zehaztu gabe. Legegintzaldi honetan izan dugun erronka izan da plan berriaren parte hartzea, sortu eta; orain, plana gauzatzeko legean gure aldarrikapenak egon daitezen lantzen ari gara. Espero dugu, behintzat, beti borrokatu izan dugun sortutako hondakin kopuruaren arabera ordainketa legean jasota egotea. Horrela sakandarrok beste egoera batean egonen ginatke, Europak eta legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituen bakarrak baikara.

#### Nafarroako Gobernua eta Hondakin Partzuergoa Sakanak defendatzen zituen irizpide batzuk partekatzerara heldu da.

Adaketa izugarria izan da. Espazaren garaiko hondakin politika eta gaurkoa erabat desberdina da. Partzuergotik ere proiektu pila bat martxan dugu.

9. orrian segitzen du

**Karasatorre**  
janaridenda · harategia

Artisau erara egindako hestebeteak  
Autozerbitzua  
Etxeko tripekiak

CONCURSO NAVARRO  
**TXISTORRA**  
UNIVERSARIO  
NAFARROAKO TXISTORRA  
**LEHIAKETA**  
1. SARIA

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

**iTYRRI** **EDER**  
JATETXEA TABERNA

948 461 530 · Larrañeta, 7 · Etxarri Aranatz

Ongi pasa festetan

**HAURREN TXOKOA**

Zure urtebetetze festa onuratsua da

Larunbatetik 03:00etatik aurrera  
**filmeak**

ALTSASU



## 8 orritik heldu da

Lortu dugu desataskatzea eta, behingoz, aspaldi eskatua genuen konpost planta abian jartzea, lortu dugu Altsasurako eta Zior-dirako bi puntu berde martxan jartzea, hainbat kanpaina ere martxan jarriko dituzte... Elkarlana, harremana, komunikazioa, erabatekoa da.

### Hondakin sistema bilketa berria ezartzea tokatu zitzaizun.

Zaila izan zen. Gero horren emaitza izan zen ikustea % 25etik % 80ra pasatzen ginela atez atekoa jarri zen herrietan. Eta orokorrean, bi herritan ezer egin gabe, % 50era baino gehiagora iristea Sakana osoan... horrek emandako pozak egindako ahalegin guztiak konpentsatzen ditu.

### Kontu Ganberaren aholkuei segituz, plantilla osatzen joan zarete.

2012an teknikaria hilabeteetan hemen izan genuen. Emaitza izan zen gauzak ongi egiten zirela eta zenbait aholku. Bete ditugu. Pozik eta ongi. Mank-en onerako izan zen. Kudeatzaile eta idazkari lanpostuak bete ziren (azken hori bete zuenak bi urteko eszedentziaren ondo-

ren postuari uko egin dio, beste lan batera joateko). Idazkaria eta hondakin teknikaria kontratatzea falta da. Azken hori, Hondakin Zerbitzua izanen dena antolatzeko pibotea izanen da. Hondakindegian zati bat itxi eta industria-hondakinendako berria zabalduko da. Han ere konpost planta egonen da. Kudeaketan aldaketa batzuk egin, gutxienez, kudeaketa taldea indartu eta zabaltzeko, gutxi berru teknikari lanpostu deialdia aterako da; beharrezkoa baita zerbitzu hori eraldatzeko.

### Esan duzu gobernu aldaketa nabaritu duzuela Mank-en.

Guretako izugarria izan da. Lehen behin eta berriz joan, zenbait behar-beharrezkoetarako... Zor ziguten eta obra batzuetarako aurreratutako dirua ere ukatzen ziguten. Bazterkeria erabatekoa zen. Orain lortu dugu horiek kobratzea eta inbertsio berriak sartzera. Aurtun Ur Zerbitzuan inbertsio potolo bat eginen dugu. Hurrengo urtean Urdalurko hoditeria Irurtzuna eramateko beste zati baten oniritzia dugu. Beste mota bako harremana. Inbertsio batzuk

derrigorrezkoak ziren, beharrezkoak, zerbitzu txukun bat emateko. Orain lan karga izugarria da, dena batera heldu da eta. Kudeatzen ari gara: konpost planta, hondakindegia zati baten itxiera, bestearen irekiera, Ur Zerbitzuko inbertsioa, puntu berdeak... Baina, pozik. Inbertsioak hemen geldituko dira.

### Toki Azpiegitura Planean Mank-i zein diru-laguntza emanen dieten jakin gabe zoaz.

Bai, beste inbertsio batzuk ditugu eskatuta eta ez dakigu noiz esanen duten.

### Zein dira zure ordezkioak, Davidek, dituen erronkak?

Behin teknikariaren lanpostua beteta, Hondakin Zerbitzuaren antolaketa. Uste dut behar dugula atez atekoaren bigarren bertsioa, 2.0. Gehi beste hobekuntza eta antolaketa bat erronka guztiei aurre egin ahal izateko. Nire ustez hor erronka handi bat dago: ezin gaitzek 2013an egindakoarekin gelditu, beti ere, jarraipenik egiten ez bazaio birziklatze-tasak behera egiten du. Hor jarraitu behar dela uste dut. Bestetik, Nafa-



Aior Karasatorre eta David Oroz elkarrekin. UTZITAKOIA

roako Tokiko Maparen berrantolaketa dela-eta, dakigunez, mankomunitatea desegin eginen da eta erakunde berri bat sortuko da. Entitate berria sortuko da eta derrigorrezko gutxieneko zerbitzu batzuk izanen ditu hasiera batean: hondakinak, ura eta gizarte zerbitzuak. Baina hor zalantzan dago orain arte kudeatzen ditugun zerbitzuekin zer egin, nola jarraituko dugun,

nola antolatuko garen, nola aurre egingen diogun... Nik uste erronka garrantzitsua daukagu. Ditugun gainontzeko zerbitzuetan, antolaketa eta zerbitzua mantendu eta berraztertu, bai euskaran, bai zaharberritzean, bai kirolean, bai aniztasunean... Badirudi orain, epe laburrean, zerbitzu berri bat sortzekotan gaudela, berdintasun zerbitzua.

**Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**

**ARAIA-ASPARRENA**  
**XXIV UMORE ANTZERKIAREN JAIALDIA**  
**ABUZTUA 11 → 15**  
 SARREREN ALDEZ AURRETIK SALMENTA  
 ARAIA  
 ARATZ TABERNA  
 GASTEIZ  
 CASA DEL LIBRO. ARKA KALEA, 11  
 AGURIAIN  
 TURISMO BULEGON  
 945 202 931  
**WWW.JAIALDIA.COM**

Logo of the Diputación Foral de Álava, logos for Vital, Diario, radio vitoria, and Araia Central Herriko Erakundeak, and the logo of the Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava.

# Ondasun higiezinaren balioa kalkulatur

Aurreko txostenarekin alderatuta, orokorrean, lurzoruaren balioa txikitu egiten da, baina eraikuntzarena handitzen da. Salbuespena dira aurreko txostenetik Hirigintza Planean egindako aldaketak hartzen dituztenak, gehiago balio dutela.

## ALTSASU

Altsasuko Udalak herenegun egindako bilkuran Balorazio Txostena onartu eta hura negoziatuko duen ordezkari izendatu zuen. Aipatu txostenaren helburua da udalerriko ondasun higiezin bakoitzari, indibidualki, balio bat ematea. Horretarako, metodo eta parametro teknikoak zehazten dira. Azken batean, Balorazio Txostena baloraziorako dokumentu teknikoek osatuta dago.

Txostenak aldatzeko bi baldintza betetzen dira Altsasun. Batetik, bost urte baino gehiagoko dokumentua dela, Altsasun indarrean dagoen txostena 2002ko apirilaren 26koa baita. Eta, bestetik, Udal Hirigintza Planean eremu jakinen erabilera eta aprobetxamendu baldintzak aldatu izana. Esaterako, Beikolarko Plan Berezia. "Azkenik, gerta daiteke, zenbait higiezinaren katastroko balioa haiek Ogasunean duen balioa baino % 20 txikiagoa izatea. Beraz, Balorazio Txostena berrikusi beharra dago", esan du Javier Ollo Martinez alkateak.

Higiezinaren merkatuan prezioak behera egin dutela nabaria denez, Ollok dio "ondasun-higiezinaren balorazio berrian merkatuaren errealitatea gakoa da,



Duela hilabeteko udal bilkura.

## ALDIZKARI OFIZIALEAN ARGITARATU ONDOREN, ALEGAZIOA EPEA ZABALDUKO DA

beraz, betebeharrak legala izateaz aparte politikoa ere bada, higiezinaren katastroko balioak dituen administrazio ondorioengatik". Balorazio Txostena egiteko udalerria zortzi eremutan banatu dute eta "aurreko txostenarekin

alderatuta, orokorrean, lurzoruaren balioa txikitu egiten da, baina eraikuntzarena handitzen da. Salbuespena dira aurreko txostenetik Hirigintza Planean egindako aldaketak hartzen dituztenak, gehiago balio dutela". Txostena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren alegazioak aurkezteko aukera izanen da. Horiek udaleko eta Nafarroako Gobernuko hiruna ordezkari osatutako batzorde batek aztertuko ditu. Udala ordezkatzuz alkatea, Manuel Bergera Ijurko eta Juan Manuel

Perez Hurtado ariko dira. Alkateak esan duenez, "gainontzeko alderdiek ez dute parte hartu nahi izan".

## Inbertsioak

Bilkura berean Altsasuko Udalak erabaki zuen 3.800 euro bideratzea industrialdeen seinaleztapena egiteko. Bakoitzaren sarreraren panel bana jarriko da, zeinak industrialdearen plana eta dauden enpresen zerrenda izanen duen. Panelak egin aurretik enpresei haien kokapenari buruz duten informazioa bidaliko zaie, akatsik balego, egin aurretik zuzentzeko.

Bestalde, herrian panela jarriko du udalak Usolarrainen baleontzien ibilbidearen berri emateko, ziurrenik Baratzeko-bide plazako turismo bulegoaren ondoan. Horretarako 1.000 euro bideratuko ditu. Gainera, udalak 32.000 euro bideratuko ditu eszena-toki bat erosteko. Orain arte erabiltzen dena ere izaten segituko du, gainera, harendako toldoa erosi du. Aldi berean, eskolaz kanpoko jardueretan euskara sustatzeko asmoz udalak 2.700 euro bideratuko du. Aurrekontuen tramitazioan hori eskatuz mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk, baina kontu-hartzailearen kontrako txostena zuen eta ez zen onartu. Orain aurrekontu emendakin gisa onartu da Geroa Baik proposatuta.

Ikastetxeekin lotura, udal taldeak jakinarazi zuen aurki haiendako deialdi zirriborroa aurkeztuko duela. Festa egitaraua ere onartu zuen udalak. Geroa Baiko M<sup>a</sup> Carmen Otaegi Saez de Maturana zinegotziaren agurreko bilkura izan zen herenegun, legegintzaldi honetan eta aurrekoetan egindako lana eskertu zioten.

## Bi turismo bulegoak bisitarien harrera egiten

Altsasuko bulegoa Amaia Hernandezek kudeatzen du eta Aralarkoa, berriz, Odei Murugarrenek

## SAKANA

Azkeneko lau urteetan turismo bulegorik gabe egon gara Sakanan. Baina Sakanako Plan Estrategikoan turismoa landu beharreko esparruetako bat zela jaso zen, turismo teknikaria kontratatu zuten, Paki Urbitarte, eta aurreko urtean bi turismo bulego zabaldu dira: Altsasukoa, Iortziako zabalgunean dagoen lokomotoran kokatua dagoena, eta Aralarko santutegiaren ondokoa.

## Ordutegiak

Bi bulegoak astelehenean itxita izanen dira. Bestelakoan, ordutegi desberdina izanen dute. Aralarko santutegiko turismo informazio puntua asteartetik larunbatera 11:30etik 18:00etara eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara dago zabalik. Harremanetarako: smaralarturismo@gmail.com e-posta edo 669 865 867 telefonoa daude.

Altsasukoa asteartetik larunbatera 10:30etik 15:00etara eta 16:00etatik 18:00etara dago zabalik. Igandeetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara. Harekin harremanetan jarri nahi duenak bi bide ditu: altsasuturismo@gmail.com e-posta eta 625 311 265 telefonoa.

**MARINELETHE**  
**HARATEGIA**

Ongi pasa festetan!

948 46 19 80  
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6  
Etxarri Aranatz

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

asko gozatu festetan!

**NEREA BAKAIKOA**  
Ermifieta kalea 4 · 948 567 331  
LAKUNTZA

**iraitze**

gosariak bokatak

948 462 102  
ETXARRI ARANATZ

**TANIA**  
ARRAINDEGIA

Ongi pasa festetan

948 576 300  
Mikel Arregi 6



Iruñean, sanferminetan, egindako kontzentrazioa.

## Udan Altsasukoen auzia argazkien bidez zabaltzeko deia

Plataformak eskaera hori egin du. Euro-parlamentariak, berriz, estatuaren terrorismo arauen erabilera aztertzea

### ALTSASU

Horixe egin du herri-plataformak: "udako oporrak baliatuta munduko edozein lekutatik #AltsasukoakAske mezua zabaltzea". Zehazki, lelo hori duten kamisetak edo banderolak ageri diren argazkiak egin eta partekatze eskatu dute. Horretarako, 690 057 098 telefono zenbakia eta altsasukoak.aske@gmail.com e-posta eman dituzte. Leloa duen ikurra Interneten eskuratu daiteke. Bestalde, agorriaren 14an Adurrek, Jokinek eta Oihanek espetxean 10 hilabete eginen dituzte. Haien egoera eta auzia bera salatze kontzentrazioa eginen da. Uda izanik, Dantza-lekuko igerilekuan eginen da, 19:00etan.

Aurreratu bezala, Altsasuko Gurasoak Nafarroako eskualdeetan barna bira egiten hasi dira. Elizondo izan zen aurreneko geldialdia. Han auziari buruz eurek duten ikuspegia zabaldu zuten. Herenegun, berriz, Tafallako Udalaren bilkuran hitza hartu zuten euren egoera azaltzeko. Udalak, gainera, fiskaltzaren zigor eskaera "neurrigabekoa" dela dioen mozioa onartu zuen. Bilkuraren aurretik auzia salatze kontzentrazioa egin zuten ere. Hilaren 20an, Madrilen, ehun bat pertsona fiskaltzaren zigor eskaera eta auzia bera salatu zituzten.

### Europa

Altsasuko auziari buruzko ebazpena onartu zuten 52 euro-parlamentariak San Pedro egunean.

"Proporzionaltasun, justizia eta zuzentasun printzipioak nagusi daitezten" eskatu zuten. Beste urrats bat egin dute sinatzaileek. Joan den asteko ostegunean jakinarazi zuten, Espainiak terrorismoari buruzko arauak era egokian aplikatzen dituen aztertzeko eskatu dute parlamentu-ekin bide baten bidez.

Marina Albiol (IU), Xabier Benito (Ahal Dugu), Izaskun Bilbao Barandika (EAJ) eta Josu Juaristik (EH Bildu) Europako Komisioari eskatu diote Europako legeen eta estatuko legeen arteko egokitzapenen prozesu hori berrikusi dezala, eta egiazta dezala ea kasu honetan gertatutakoa bat datorren Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunaren 49.3 artikulua jasotzen dituen zigoren proportzioei buruzko aurreikuspenekin. Ferietako liskarrean gertatutako terrorismo delitu bilakatzeko fiskalak zer prozedura erabili duen ere jaso dute idatzian.

Bestalde, EAJko Nafarroako buru Unai Hualdek "erabateko neurrigabekeriatzat" jo du Altsasuko auzia. "Badirudi ez duenari terrorismo-ekintza entitatea emateko interes ulertezina dagoela". Hualdek gaineratu duenez, "asko kezkatzen nau Hego Euskal Herriko erakundeak elkarbizitza baketsu eta demokratikoa finkatzeko ahalegin guztiak egiten ari garenean, estatuaren menpeko erakundeek gertakari isolatu bat baliatzea tentsionatzeko eta nahasteko".

## Udako Kalera! martxa Lakuntzan bukatu zen

Azken etapa Sakanan egin zuten, Lakuntzan bukatuz. Bat egin zuten Hatortxu Rock jaialdiarekin

### LAKUNTZA

Aurreko ostegunean abiatu zen Udako Kalera! Martxa Gernikatik. Ezker abertzaleko Kalera Kalera dinamika antolatutako duen euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko martxa. Zortzi etapen ondoren, atzo bukatu zen, Lakuntzan. Sortuko Nazio-Kontseiluko Maite Sabaltzak adierazi zuenez, jarraipen polita izan du martxak. "Helburua nahiko jakina da: euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen askatasuna aldarrikatzea. Eta esan behar dugu oso pozik gaudela herriz herri martxa honek jaso duen harrerarekin". Sabaltzak kartzelak husteko garaia dela nabarmendu zuen. "Uste dugu kartzelak husteko garaia dela, ez betetzeko. Herri honek ez du erreproso gehiagorik nahi, kartzelaratze gehiagorik nahi. Herri honek nahi eta merezi duena da bakezko eta justiziazko agertoki bat, eta agertoki hori posible izan dadin ezinbestekoa da preso, iheslari eta deportaturik gabeko gizarte bat".

Altsasun auzia ere hizpide izan zuen Sabaltzak. "Gertatutakoak argi uzten du Estatuaren estrategia zein den. Estatuaren estrategia armatua da, eta Estatuak, gainera, garbi utzi du estrategia hori aurrera ateratzeko edozein eskubideren eta mugaren gainetik pasatzeko prest dagoela. ETAk bere armak utzi ditu, baina oraindik herri honetan estrategia armatuarekin jarraitzen duten batzuk badaude, salbuespenezko jokabideekin jarraitzen dutenak, eta azken 6 urteetan herri honetan aldaketarik egin ez balitz bezala jarraitzen dutenak jokatzen. Hori onargaitza iruditzen zaigu. Ez da bidezkoa eta ez da bideragarria eta horregatik eskatzen diegu ere indar armatuei Euskal Herriko alde egiteko" azpimarratu zuen Sortuko kideak.



Eskenatokiak eta guneak herritarrak eta musikariak jasotzeko prest.

## Hatortxu Rock 20, mugarri izateko bidean

Atzo hasi eta igandera arte, Hatortxu Rocken 20. edizioa ospatuko da Lakuntzan. Antolatzaileen arabera, Euskal Herrian sekula egin den elkartasun jaialdirik handiena izango da. Musika nagusi, bestelakoak ere

### E Agirebengoa Apaolaza LAKUNTZA

1999an ospatu zen lehendabizikoz Hatortxu Rock elkartasun jaialdia, Berriozargo frontoi txiki batean, lau lagunek ekimenez. Bi xederekin atondu zuten: euskal preso politikoen, iheslari eta deportatuek bizi zuten egoera salatzea, eta dispersioak kaltetutako senideei gastuak arintzea. Gerotik, jaialdiak bilakaera izugarria izan du. Hazten joan da urterik urte. Haatik, berau antolatzeko zioek bere horretan dira. Hiltzeko jaio zen Hatortxu Rock, baina aurtengoa jada hogeigarren edizioa du. Beste edozein musika jaialdiarentzat gauza handia litzatekeena, kezka iturri da kasu honetan. Izan ere, dispersio politikak indarrean jarraitzen duela eta dirau bizirik jaialdiak.

Gauzak hala, hogeigarren edizioa mugarri izatea nahi dute antolatzaileek. Horregatik, lau eguneko jaialdi erraldoia prestatu dute, marka guztiak apurtu, eta mahai gainean kolpea emateko. Edizio berezi honek Lakuntza izango du egoitza. 2009ko edizioa ere bertan ospatu zen, eta, orduko hartan, jaialdiaren antolatzaileak oso pozik gelditu ziren herritarren erantzunarekin. Bada, oraingoan sentipen bera izaten ari dira.

12. orrian segitzen du

**"LAN HANDIA EGIN DUTE HILABETE HAUETAN. OSO ESKERTUTA GAUDE LAKUNTZARREKIN"**

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

**Enkargatu zure testu liburuak**  
948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI ARANATZ

**MAITE GARBIKETAK**

Garbiketa orokorrak, etxebizitzak, bulegoak, portalak  
629 732 160  
imazmaite@hotmail.com

## 11. orritik heldu da

Hala dio, bederen, Aitor Agirrezabalek, Hatortxu Rockeko antolatzaile eta boluntarioetako batek: “hasieratik jaso genuen lakuntzarren babesa proposamena egin genienean. Gainera, lan handia egin dute hilabete hauetan. Oso eskertuta gaude. Beren babesik gabe ezinezkoa zatekeen guretzat aurtengo edizioa antolatzea”.

Auzolana betidanik izan da Hatortxu Rocken ardatzetako bat, baina aurten are garrantzitsuago bihurtu da, jaialdiaren dimentsio erraldoia dela-eta. Antolatzaileek 6.718 boluntario lortzea zuten jomuga, baina jaialdia hasteko hiru egunen faltan oraindik 800 falta zitzaizkien aipatu zifrara iristeko. Kontuak kontu, atzo arratsaldean abiatu zen jaialdia, eta igandera arte iraungo du. Guztira 84 musika taldek hartuko dute parte lau egunetan zehar. Taula-gainean izango dira Euskal Herriko talderik indartsuenak, baita sona handiko nazioarteko hainbat talde ere. Eskaintza musikaridagokionez, Agirrezabalek aniztasun handia izango dela azpimarratu du. “Ezinezkoa da halako zerrenda baten aurrean zure gustuko izango den talde mordoak ez aurkitzea”.

Zernahi ere, aurtengo Hatortxu Rock musika jaialdi huts bat baino askoz gehiago izatea nahi dute antolatzaileek. Horregatik, eszenatokietatik at ere eskaintza zabala izanen da lau egunotan. Adibidez, mendi martxak eginen dira Beriainera eta Aralar-Arangunera. Gainera, hainbat hitzaldi ere izango dira; kasurako, larunbatean Preso politikoa eta gatazkaren konponbidea hitzaldia eskainiko dute nazioarteko hainbat ordezkari. “Milaka pertsona bertaratuko dira Lakuntzara, eta ezin da ahaztu zergatik eta zertarako gauden hemen. Esparru hori aprobetxatu beharra dago gure mezua zabaltzeko”, azaldu du Agirrezabalek.

## Igandean, ekitaldi nazionala

Ostegunetik larunbatera jaialdiak ohiko itxura izanen du, baina igandea egun berezia izango da. Orduan egingo da aurtengo edizioako ekitaldi nagusia: dispertsioaren kontrako ekitaldi nazionala, *Nahikoa da... Etxera!* lelopean. Berau ahalik eta

jendetsuena izatea nahi dute antolatzaileek, eta, horretarako, adin guztietako jendea gonbidatu dute. “Askok jende gaztearekin eta parrandarekin lotzen dute Hatortxu Rock. Igandea eskema horretatik atera nahi dugu. Aldarrikapen egun bat izango da. Ikastolen aldeko festen antzeko itxura izango du”, azaldu du Agirrezabalek.

Ekitaldi nazionala 13:00etan hasiko da, eta ondoren herri bazkaria egingo da Lakuntzako plazan. Egun osoan umeandako hainbat jarduerak izango dira, baita hainbat kontzertu ere: besteak beste, Ken Zazpiren, Gozategiren, Enkoreren eta Huntzaren doinuez gozatzeko parada egonen da. Igandean debaldekoa izango da sarrera. Ostiral eta larunbatean, ordea, 45 eurotan salduko dira eguneko sarre-ak, eta egun guztietako bonoek 90 euroko prezioa izango dute. Sarrerak txarteldegian eskuratu beharko dira, joan zen igandean amaitu baitzen txartelak alde zuzenetik erosteko epea.

## Herria, autoendako itxita

Egunotan jaialdira milaka pertsona etorriko direnez, herria asteazkenetik dago itxita autoendako. Soilik pasea duten ibilgailuak sartu daitezke herrira; alegia, lakuntzarrenak eta bertan lan egiten dutenenak. Zortzi kontrol puntu dituzte herritik atera ahal izateko, eta hiru sartzeko: Sakana fundizioko puntua, gasolindegiko puntua eta hostoak puntua. Pasea ez dutenek antolakuntzak Arbizu eta Lakuntza artean egokitutako aparkalekutan utzi dezakete autoa. Sarrerak bost euro balio ditu.

Nolanahi, antolatzaileek nahia- go dute jendeak garraio publikoa erabiltzen badu. Lakuntzara autobusez eta trenez joan daitezkeela azpimarratu dute –anezkek egongo dira Etxarritik Lakuntzara–. Gainera, ostiral eta larunbatean sakandarrek eskuragarri izanen dute Jaibus zerbitzua. Ohiko ordutegia izango du.

## Mugarik gabeko elkartasuna

Edizio honetan kanpalekua egongo dela baliatuz, Hatortxu Rockek janari bilketa egingo du Zaporeak elkartearekin elkarlanean. Igandean janaria biltzeko postu bat jarriko dute kanpalekuaren atarian. Bildutako elikagaiak Chioseko (Grezia) errefuxiatu-kanpalekura era-

## Oholtzatik at ere, eskaintza zabala

## LAKUNTZA

Aurtengo Hatortxu Rock musika jaialdi bat baino gehiago izango da. Izan ere, kontzertuez aparte, beste hainbat jarduerak ere izango dira; besteak beste, hitzaldiak eta mendi martxak.

## OSTEGUNA 27

- **18:30** Hasiera ekitaldia herriko plazan.
- **19:00** Kalera-kalera martxaren amaiera.
- **19:15** Sakatu elektrotzaranga.

## OSTIRALA 28

- **8:30** Mendi martxa Aralar-Arangunera.
- **12:00** Hitzaldia: Etxerat eta preso eta senideen aldeko herri ekimenak (kultur etxean).
- **19:00** TTEK elektrotzaranga.

## LARUNBATA 29

- **8:30** Mendi martxa Beriainera.
- **10:00** Graffiti erakusketa gaztetxe parean.
- **12:00** Nazioarteko hitzaldia: preso politikoa eta gatazkaren konponbidea (kultur etxea).
- **19:00** Zo-Zongo! perkusio taldea.
- **21:00** Zo-Zongo! perkusio taldea.

## IGANDEA 30

- **10:45** Artisau eta ekoizleen azoka egunetan zehar (Mikel Arregi kalea).
- **11:00** Haur txokoa Beriain gunean.
- **13:00** Dispertsioaren kontrako ekitaldi nazionala, Nahikoa da... etxera! lelopean (Beriain gunean).
- **14:00** Herri bazkaria plazan.
- **15:00** Irrien Lagunak (Naiz gunean). Eguna borobiltzeko kontzejak afari eskainiko du, ohi denez, marmitakoa. Ondoren, parrandazaleak ordu txikitaraino lagunduko dituen dantzaldia izanen da.

mango ditu aipatu elkarteak. “Ekimen honen bitartez, Hatortxu Rocketik gure elkartasuna adierazi eta ahal dugun moduan gure ekarpena egin nahi dugu Greziako kanpalekuetan pilatu-

ta dauden errefuxiatuei laguntzeko”, adierazi dute antolatzaileek. Egunotan jaialdira joango direnei eskatu diete soberakinak ez botatzeko eta berauek Zaporeakeko kideei emateko.

## Hatortxu Rock-eko ordutegiak

Ordua	Ilusioa	Elkartasuna	Hator neska	Hator mutil	Etxera!
<b>Osteguna 27</b>					
18:30					Hasiera ekitaldia
19:30					Sorkun
20:00	Lehiotikan		El Sonido de la Metrala		
21:00		Willis Drummond		Raperos de Emaus	
22:00	Esne Beltza		Estricalla		Tximeleta
23:00		Soziedad Alkoholika		Il Dituvi	
00:00			Skakeitan		
00:30	Narco				
01:30		Green Valley		Porco Bravo	
02:30	Def con Dos		Dakidarrria		
03:00					
03:30		Strombers		Elepunto Vs Jotatxo	
<b>Ostirala 28</b>					
12:30					Lurra
16:00					Anari
17:30					Occhi di Farralla
18:00	Gatillazo		Hibakusha		
18:30					
19:00		Lendakaris Muertos		Mafalda	
19:30					Liher
20:00	Amparanoia		Hesian		
21:00		Betagarri + X. Sarria + M. Girones		Arkada Social	
21:30					
22:00					Doctor Deseo
22:30	Berri Txarrak		Sara Hebe		
23:00				Ehun Kilo	
23:30		Gatibu			
00:00					Trikidantz
00:30	Su ta Gar		Glaukoma		
01:30		Talco		Governors	
02:30			Kop		
03:00	Jopsebxu Piperrak				
04:00		Lagrimas de Sangre		Kaos Urbano	
05:00	Tremenda Jauria		Chit Chat Sex Band		
05:30			Reviverd Live		
<b>Larunbata 29</b>					
12:30					Jo & Swissknife
16:00					The Icer Company
17:30					Txuma Flamarique
18:00	Juantxo Skalari & La Rude Band		Alerta Gorria		& The Zaratamakers
18:30					
19:00		Kaotiko		Auxili	
20:00	Vendetta		The Guilty Brigade		
21:00		Ekon			
21:30				Zoo	Kerobia
22:30	Non Servium		El Corazon del Sapo		
23:30		Des-Kontrol		Zea Mays	
00:00					Akerbeltz
00:30	Inadaptats		Los Zopilotes Chirriaos		
01:30		Riot Propaganda		Anestesia	
02:30	Txarango		Iseo & Dodosound		
03:30		Bad Sound		Revolta Permanent	
05:00	Dremen		Reimy dj		
<b>Igandea 30</b>					
11:30	Porrotx				
13:00	Ekitaldia	Ekitaldia	Ekitaldia	Ekitaldia	Ekitaldia
14:00	Oreka TX				
15:00		Itaca Band	Zartako K		
16:00	Huntza				
17:00		Ken Zazpi	Bultz		
18:30	Gozategi		Enkore		
19:30					Izerdi Gorria

Gutxi gorabeherako ordutegiak

# UDAKO AGENDA

## OSTIRALA 28

**ETXARRI-ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.

*Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean, 19:00etan.*

**SAKANA** Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin.

*Plazan, 20:00etan.*

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa.

*Udaletxe parean, 20:00etan.*

## ETXARRENGO FESTAK

## OSTIRALA 28

**19:00 Txupinazoa** eta jaiak hasten dira!

**19:15 2016-17an jaiotakoei festetako zapia ematea.**

**19:30 Herri Jokoen VI. Mundu Txapelketa.**

**19:30-21:30 Dantzaldia Luzianorekin.**

**22:00 Herri afaria** (Apeztegierriko Denda, Jauntsarats).

**00:00-05:00 Dantzaldia** Luzianorekin.

## LARUNBATA 29

**11:30 Hamaiketakoa.**

**12:00 Haur jolasak:** Tramankulu.

**17:30 Hiruko saskiratzeen txapelketa.**

**18:30 Txokolate-jana.**

**19:30 Txoripanas** musika ikuskizuna.

**20:00-21:30 Dantzaldia** Elebitan taldearekin.

**21:30 Bingoa.**

**22:00 Zezensuzkoa.**

**22:30 Herri afaria** (Apeztegierriko Denda, Jauntsarats).

**00:00 Dantzaldia** Elebitan taldearekin.

## IGANDEA 30

**11:45 Hamaiketakoa.**

**12:30 Herritarren arteko Herri Kirolak.**

**16:30-19:30 Jolas parkea eta zezen mekanikoa.**

**17:30 Pilota partidak.**

**19:30 Mexikarrak:** Quevedo.

**21:30 Bingoa eta zozketak.**

## ASTELEHENA 31

**11:30 Hamarretakoa.**

**12:30 VI. Munduko Ping Pong Txapelketa.**

**14:30 Herri bazkaria.** (Apeztegierriko Denda, Jauntsarats).

**16:30 Mus eta briska txapelketak.**

**16:30 Haurrendako Jolasak.**

**00:00 Haur pena nik.**

## LARUNBATA 29

**IRURTZUN** Iratxo elkarteko mendi taldeak Pirinioetara irteera antolatu du. Elkartetik, goizean.

**ALTSASU** Altsasutik Altzorako 125 km-ko joan-etorria egingen du zikloturista taldeak. Baratzeko bide plazako lokomotoratik, 08:00etan.

**UHARTE ARAKIL** Aralarko santutegiko arkeologia-indusketan bisita gidatua dago larunbatero. [info@aditu.info](mailto:info@aditu.info) e-postaren bidez egin daiteke eskaera. Abside ondoan, 11:00etan.

## ETXARRI ARANAZKO FESTAK

## LAUNBETA 29

### ETXIA! EGUNE

**10:00 Ehiza-ibilbidea** Antolatzailea: Muxar Ehitari Taldea.

**11:30-14:30 Erakusketa** Etxarriko erraldoi zaharrei buruzko udaletxeko estalopean.

**12:00 Zapi-banaketa** 2016an jaiotako haurrei

**13:00 Festa hasierako suzuria.** Gero Kalejira Etxarri Aranazko erraldoi eta buruhandien konpartsa, Etxarri Aranazko gaitero eta Turrutxiki txarangarekin.

**14:00 Kontzertua** Turrutxiki txarangarekin, plazan.

**17:30 Pilota eta pala partidak** Aitor Zubieta pilotariari omenaldia. Antolatzailea: Gure Pilota Elkartea.

**17:30 Kalejira** Turrutxiki txarangarekin.

**18:30 ikuskizuna** Etorkizuna Euskal Dantza taldearen, plazan.

**19:30 Manifestazioa** Euskal preso, iheslari eta deportatuak behingoz kalera. Antolatzailea: Kalera kalera.

**20:00 Salbea**

Andra Mari baselizan, Etxarri Aranazko abesbatzak eta parrokiako abesbatzak kantaturik. Antolatzailea: Eliza.

**20:30 Auzatea**

Hartzabal, Etxe-Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karriestu elkarteek prestatuturik.

**20:30-22:00 Dantzaldia** Tximeleta taldearekin.

**22:00 Zezensuzkoa.**

**00:30- 04:30 Dantzaldia** Tximeleta taldearekin.

## IYENDIE 30

### ARAÑAZ ELKARTIEN EGUNE

**10:30 Dianak** Etxarri Aranazko gaiteroekin.

**11:30 Auzatea** Gure-Etxea elkarteak prestatuturik.

**12:00 Meza nagusia** Antolatzailea: Eliza.

**12:30 Herri-kirolak** Plazan aizkora apustua eta harri jasotzaileak. Sakanako Aizkora Eskolako ikasleen erakustaldia. Laguntzailea: Insaluz.

**13:00 Etxarriko Buruhandiak.**

**13:30 ikuskizuna** Disie Opera Band Musika

**19:00 Kale-antzerkia** Trapuzaharra taldearen Etsitak.

**20:00-22:00 Dantzaldia** Oharkabe taldearekin.

**22:00 Zezensuzkoa.**

**00:00-03:00 Dantzaldia** Oharkabe taldearekin.

## ASTELEHENA 31

### KUADRILLAAN EGUNE

**10:30 Dianak** Turrutxiki txarangarekin.

**11:30 Auzatea** Etxe-Azpi elkarteak prestatuturik.

**12:00 Haurrendako apar-festa** (Bainujantzia eta txankletak eramán)

**12:30 Bertso-saioa, plazan** Julio Soto, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia eta Eneko Lazkoz.

**13:00 Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarrak.**

**18:00 La Banda taldearen Km 0 kale ikuskizuna.**

**19:00 Kalejira** Turrutxiki eta Kalean txarangekin.

**20:00-22:00 Dantzaldia** Trikidantz taldearekin.

**22:00 Zezensuzkoa.**

**00:00-03:00 Dantzaldia** Trikidantz taldearekin.

## ASTEARTEA 1

### HAURREN EGUNE

**11:30 Auzatea** Udaberri elkarteak prestatuturik.

**11:30-13:30 Jolas-parkea** haurrendako.

**13:00 Etxarriko Buruhandiak.**

**13:30 Musika saioa** Ta Lauèn.

**17:00 Futbol-plaza txapelketa** kale nagusian.

**17:00-19:00 Jolas-parkea** haurrendako.

**19:00 XXIV. Play Back txapelketa** plazan. Sariak: Bakarka edo binaka aritu den onenari (75 eu. € taldeka aritu den onenari (100 eu. € euskal abesti onenari (75 eu. €

**20:00-22:00 Dantzaldia** Oharkabe taldearekin.

**22:00 Zezensuzkoa.**

**00:00-03:00 Dantzaldia** Oharkabe taldearekin.

## ASTIAZKENA 2

### AITTUN-AMIÑAN EGUNE



**11:30 Auzatea**  
Hartzabal elkarteak prestatuak.

**12:00 Meza**  
Antolatzailea: Eliza.

**12:00 Haurrendako apar-festa**  
(Bainujantzia eta txankletak eraman)

**13:00 Etxarriko Buruhandiak eta bonba japoniarak**

**13:00 Txamukoak musika saioa.**

**14:30 Amiñ-aittunen bazkaria.**

**16:00 Aitor soinu jole eta musikaria.**

**17:00 XXX. Iruñerriko itzulia**  
(Jubenilen bizikleta-lasterketa).  
Antolatzaileak: Aralar eta Ermitagañako  
txirindularitza taldeak. Laguntzailea:  
Insalus

**18:00 Pailazo ikuskizuna**  
Kiko eta Moko familiarteko.

**20:00-22:00 Dantzaldia**  
Drindots taldearekin.

**22:00 Zezensuzkoa.**

**00:00-03:00 Dantzaldia**  
Drindots taldearekin.

## OSTEGUNE 3

### KINTUEN EGUNE

**10:30 Dianak**  
Turrutxiki txarangarekin (kintoek etxek  
etxe dirua eskatzen dute). Antolatzailea:  
Urteko kintoak.

**11:30 Auzatea**  
Urteko kintoek prestatuak.

**12:00 Nesken pala-partidak**  
Antolatzailea: Gure Pilota Elkartea.

**13:00 Etxarriko Buruhandiak eta erraldoiak. Japoniar bonbak.**

**13:00 Musika saioa**  
Iñaki Auzmendi eta Juanmi Arzelusen.

**17:00 Kalejira**  
Turrutxiki txarangarekin.

**17:30 Bordetxe abere zirkoa.**

**19:00 Kintoek antolaturiko ginkana.**

**22:00 Zezensuzkoa.**

**23:00 Kontzertuak**  
Hatorburen laguntzarekin: Garabatos,  
Brutal Room eta Kaotiko.

## ETXARRIKO HERRI MUGIMENDUBAN FESTA EGITARAUE

## LAUNBETA 29

**10:30-12:30 Areto futbol**  
EGAn txapelketa (3-4. postubek eta finala).

**13:00 Etxafigure!**  
Hartu banderola eta has ziaun festa!

**15:00 Bazkaye**  
Preso eta iyelaien alde.

**19:30 Manifestaziye**  
Preso, iyelai ta deportatubek kalia!

## IYENDIE 30

**20:00 Saiheski jatie gaztetxien.**

## ASTELEHENA 31

### KUADRILLAN EGUNE

**15:00 Sagardoteye bazkaye**  
Karrikestun.

**18:00 Mozorro ta karruen**  
kalejire-lehiaketa gaztetxetik.

## ASTEARTIE 1

**21:30 Bertso Afaye gaztetxe** geñeko  
estalopien.

## ASTIZKENA 2

### GAZTIEN EGUNE

**15:00 Bazkaye gaztetxien.**

**19:00 Elektrotxufiak poteue.**

**23:00 Kontzertubek**  
Gaztetxien: Nafarroa 1512 eta Sofokaos.

## OSTIELA 4

### INUTILLAN EGUNE

**11:00 Burrenbada ta auzatie plazan.**

**12:00 Hard bass herritik.**

**14:00 Bazkal aurreko poteue.**

**15:00 Bazkaye plazan.**

**17:00 Fatxai tirue jolasa.**

**18:00 Desfilie Turrutxiki**  
txarangarekin.

**20:00 Pregonan irakurketa eta**  
kontzentraziyue plazan.

**22:00 Zezensuzkue.**

**00:00 Kontzertube**  
Ingo al deu?

**01:30 Hau pena nik!**

## IGANDEA 30

**ALTSASU Euskal presoak Euskal**  
Herrira kontzentrazioa.

*Foru plazan, 20:00etan.*

## ASTEAZKENA 2

**IRURTZUN** Cuerpo de élite  
filma Udako Zinema zikloaren  
barruan

*Plazan, 22:00etan.*

## OSTEGUNA 3

**ALTSASU** Altsasu Mugak  
zabalduz, Melillara joan den  
karabana solidarioan parte  
hartu dute Sakana Harrera  
Harana ekimeneko kideek.  
Euren esperientziaren berri  
emateko hitzaldia eskainiko

dute.  
*Gure Etxea eraikinean, 19:30ean.*

**ALTSASU** Gaueko pulunpa.  
Altsasuko Udako Gazteria  
Zerbitzuaren eskaintza  
prestatu da, 12 urtetik gorako  
gazteei zuzenduta dagoena.  
Dantzalekuko igerilekura joaten  
direnek afaltzeko ogitartekoa  
eskuratzeko aukera izanen  
dute. Gainera, igerilekuan  
bainua hartzeko aukera izanen  
da. Ostegunero, ur-jarduera  
osagarriren bat izanen dira  
bainuaz aparte: aquagyma,  
jokoak, aquadance edota  
gynkana.

*Dantzalekuko igerilekuan,*  
*21:00etatik 23:00etara.*

## OSTIRALA 4

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia  
toki egokian. Nahi izanez gero  
posible da kontzentrazioa.  
*Kale Nagusiko 7. zenbakiaren*  
*parean, 19:00etan.*

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Euskal presoak Euskal Herrira  
kontzentrazioak.  
*Plazan, 20:00etan.*

**ALTSASU** Altsasukoak aske  
kontzentrazioa.  
*Udaletxe parean, 20:00etan.*

## LARUNBATA 5

**ALTSASU** Altsasutik  
Otxandiorako 125 km-ko  
joan-etorria eginen du  
zikloturista taldeak.  
*Baratzeko bide plazako*  
*lokomotoratik, 08:00etan.*

**UHARTE ARAKIL**  
Aralarko santutegiko  
arkeologia-indusketan bisita  
gidatua dago larunbatero. info@  
aditu.info e-postaren bidez egin  
daiteke eskaera.  
*Abside ondoan, 11:00etan.*

**ZIORDIA** Amarauna espazioan,  
komentu ohian, hura egokitzeko  
auzolan irekia deitu dute  
*5etik 8ra, larunbatetik asteartera.*  
*Ziordiko Amarauna proiektua*  
*ezagutzeko aukera izanen da.*

## IGANDEA 6

**IRAÑETA** Aralarko santutegian  
eginen den meza eta ondorengo  
bazkariarekin despedituko dute

## LARUNBATA 5



## Fix This taldearen kontzertua

### ALTSASU

• **21:00**etan kontzertua,  
Usolarrainen, Nafarroako  
Gobernuak antolatzen duen  
Kultur programaren barruan joko  
du talde madrildarrak Altsasun.  
2008ko maiatzean sortutako  
taldeak jazzetik, bluesetik,  
swingetik, Nueva Orleanseko  
musika tradizioaletik edaten  
du, baina horiek flamenkoarekin,  
musika arabiararekin, beat  
frantziarrarekin, afrobeatarekin,  
dark kabaretarekin eta beste  
hainbat estilorekin uztartzen  
ditu. Nacho Cherokee (gitarra),  
Serch (bateria), Diego Miranda  
(baxua), Gabriel Casanova  
(teklatuak), Loralí (ahotsa),  
Jhavian (tronboia), David

Carrasco (saxo tenorra), Toni  
García (tronpeta) eta Ele Iturrieta  
(koroak) dira Fix This Emanaldi  
bakoitzean agertoki bakoitzera  
moldatzen dira eta euren piezez  
aparte bertsiok jotzen ditu  
taldeak. 2009an San Adrianen  
(Nafarroa) eta Porcunan (Jaen)  
irabazitako sarie esker lehen  
estudio-diskoa grabatzeko  
aukera izan zuten. 2012an, UFI  
sarietarako (musika  
independentearen sariak)  
izendatu zituzten Radio 3ko  
banda onen gisa. Kultur  
programak, ikuskizunaz aparte  
inguruko turismo baliabide bat  
ezagutzeko aukera ematen du.

• **11:00**etatik **19:00**etara  
Urdaingo errotatik abiatuta.  
Errotain zalditegiarekin zaldiz  
ordubeteko edo biko paseok  
emateko aukera izanen da,  
Erreserbetarako: 687 424 839  
eta 626 749 149 telefonoak edo  
errotain@gmail.com. 21:00etan.

irintarrek aurtengo erromeria  
aldia. Aurreko hiru igandeetan  
elizkizunak San Gregorio, San  
Miguelberri eta Basabeko bordan  
izan dira.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal  
Herrira kontzentrazioa.  
*Foru plazan, 20:00etan.*

## ASTEAZKENA 9

**IRURTZUN** Infierno azul filma  
Udako Zinema zikloaren  
barruan.  
*Plazan, 22:00etan.*

## OSTEGUNA 10

**ALTSASU** Gaueko pulunpa.  
12 urtetik gorako gazteek  
afaltzeko aukera izateaz aparte,  
bainua eta bestelako jardueraz  
gozatzeko aukera izanen dute.  
*Dantzaleku igerilekuan,*  
*21:00etatik 23:00etara.*

## OSTIRALA 11

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia  
toki egokian. Nahi izanez gero  
posible da kontzentrazioa.  
*Kale Nagusiko 7. zenbakiaren*  
*parean, 19:00etan.*

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Euskal presoak Euskal Herrira  
kontzentrazioak.  
*Plazan, 20:00etan.*

**ALTSASU** Altsasukoak aske  
kontzentrazioa.  
*Udaletxe parean, 20:00etan.*

## LARUNBATA 12

**ALTSASU** Altsasutik  
Abaltzisketarako 120 km-ko  
joan-etorria eginen du  
zikloturista taldeak.  
*Baratzeko bide plazako*  
*lokomotoratik, 08:00etan.*

**IGANDEA 13****San Donato  
erromeria.****UHARTE ARAKIL**

Beste behin ere Beriango ermitan da hitzordua; San Donato eta San Kaietano saildeuei eskainia dagoen eraikinean hain zuzen ere. Hara igotzeko Olloko, Irañetako, Uharre Arakilgo eta Unanuko bideak dira normalean erabiltzen direnak. Haien eguna agorritaren 7an bada ere, ospakizuna ondorengo igandera pasatzen da. Uhartearrek bi sailduen irudiak herrian gordetzen dituzte eta egun honekin mendira igotzen dituzte,

• **11:00**etan izanen den elizkizunean presente izan daitezten. Mezaren ondoren auzatea izanen da. Alde batetik, Uharre Arakilgo Udalak gazta, txorizoa, urdaia, ardoa eta ura emanen ditu eta, bestetik, Olloko ibarretik joandako kafea eta pastak. Jan-edanak jendarteko harremanak sustatzeko modua izanen dira beste behin ere.

**UNANU**

San Donatiko elkartuta. San Donato eguna dela eta makina bat mendizalek hartzen du mendi gaineko ermitarako bidea Unanutik. Hori ikusita eta herriari bizitasuna emateko asmoarekin, Unanuko Kontzejuak San Donato eguna antolatzea erabaki zuen. Bai, San Donato, unanuarrek hala hots egiten diotelako santuari. Laugarren aldia izanen da festa ospatzen dena.

Denok Bat elkarteak egun guztian zabalik izanen da. Mendira joan aurretik edo ondoren handik pasa eta freskatzeko aukera izanen da. Gainera, herri bazkaria antolatu dute. Frontoian izanen da. Mahaira eseri nahi duenak aurretik izena 656 757 494 (Jon), 650 403 106 (Jabi) edo 616 664 038 (Joseba) telefonoetan eman dezake. Eguna borobiltzeko, bazkaldu ondoren, elkartean disko-jartzailea izanen da.

**UHARTE ARAKIL**

**Aralako santutegiko arkeologia-indusketan bisita gidatua dago larunbatero. info@aditu.info e-postaren bidez egin daiteke eskaera.**  
*Abside ondoan, 11:00etan.*

**ZUHATZU Festez larunbatean eta igandean gozatuko dute zuhatzuarrek eta bisitariek.**

**IGANDEA 13**

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
*Foru plazan, 20:00etan.*

**DORRAUKO  
FESTAK****ASTELEHENA 14****BEZPERA**

**12:00 Festa hasierako suzeria.**

**17:30 Futbol partidak**  
Haurrak eta herriko gazteak.

**20:00-22:00 Dantzaldia**  
Julen dj-rekin.

**21:00 Auzatea.**

**01:00 Dantzaldia**  
Julen dj-rekin.

**ASTEARTEA 15****AMA BIRJINAREN EGUNA**

**13:30 Meza nagusia.**

**14:00 Hamaiketako eta trikitixa.**

**19:00 Aizkora-apustua.**

**20:00-22:00 Dantzaldia**  
Drindots taldearekin.

**21:00 Auzatea plazan.**

**12:30 Dantzaldia**  
Drindots taldearekin.

**ASTEAZKENA 16**

**14:30 Herri bazkaria.**

**17:30 Urteroko errolda.**

**21:00 Auzatea.**

**12:30 Dantzaldia**  
Julen dj-rekin.

**OSTIRALA 18**

**12:00 Bordetxeren animaliak.**

**14:00 Auzatea plazan.**

**19:00 Puro Relajo-ren emanaldia.**

**21:00 Sardina-jana eta txistorra-jana.**

**22:00 Suziriak.**

**01:00 Dantzaldia**

Anitaren billobak taldearekin.

**LARUNBATA 19****JUBILATUEN ETA UMEEN  
EGUNA**

**13:00 Jubilatuen meza.**

**14:00 Auzatea elkartean.**

**18:00 Haurrendako jokoak.**

**20:00-22:00 Dantzaldia**  
Gabenara taldearekin.

**21:00 Auzatea.**

**00:30 Mozorro lehiaketa.**

**01:00 Dantzaldia**  
Gabenara taldearekin.

**05:00 Hau pena nik!**

**URDIANGO  
ANDRAMAUZTUKO  
FESTAK****ASTELEHENA 14**

**12:00 Etxajua**  
trikitilariak alaitua.

**16:00 Brixka txapelketa**  
Kaluxan eta Mus txapelketa Mareon.

**17:30 Apar festa plazan.**

**Festa onak pasa!**

Etxarri Aranazko Udala  
www.etxarriaranazko.eus

UcMA  
UDALERRI EUSKALBUIEN MANKOMUNITATEA

EZ-ITZ-ETZ

**20:00-22:00 Dantzaldia**  
Drindots taldearekin.

**22:30 Elkartasun afaria**  
Altsasuko gazteen alde.

**00:30-03:30 Dantzaldia**  
Drindots taldearekin.

## ASTEARTEA 15

**12:00 Meza Aitzibergo basilizian**  
Ondoren auzatea trikitilariak alaituta.

**13:30 Brindisa igerilekuan**  
Aitziber elkartearen 50. urteurrena.

**14:30 Bazkaria Urriztin.**

**20:00-22:00 Disko festa.**

**00:00-03:00 Disko festa.**

**Egunero, eguerdi eta iluntzean**  
Ardoa banatuko da alondegian.

**Bazka! aurretik eta arratsaldean**  
UGAk barra zabalduko du Urriztin.

## ASTELEHENA 14

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa, 3 gazteek kartzelan 10 hilabete eginen dituztenean.**

*Dantzalekuko igerilekuan,*  
**19:00etan.**

## ASTEARTEA 15

**ITURMENDI**

### Ama Birjinaren eguna

Ama Birjinaren eguna Aritzaga ermitan. Ermita erromanikoa zabaldu eta 12:00etan meza hartuko du. Ondoren iturmendiarekin Aritzaga elkartearen auzatea izanen dute. Guztia despedituta herrira bueltatu beharrean ermita inguruan bazkaltzen duen familiarik bada.

**ETXARRI ARANATZ**

### Amerjinan egune

San Kiriko eta Amerjinan egunien, bi hoiten elkartzeko die etxarriarrak Andremai ermitaan inguben. 19:00ten udalak etxe haunditik ermitako bidie hartuko dau eta allatutakuen etxajube piztu eta hura lertzekuen bendatzen hasteko seinale izanen da. Kuadrillek zein be eltzekuen garbitzen aittuko die. Mehitetik jaso eta kintuek Dantzakiye dantzatzeko debie ermitan atai parien. Eta horren ondoren, kalejiren, plazaa jetsiko die. Han 20:00etatik 22:00eta eta 00:00etatik 03:00ta. Orots taldiek dantzako musike joko dau. Egueldi ona

ein eskio kuadrillat beño gehio mehien geldituko da, hitz eta putz o kantas gora-gora.

## ASTEAZKENA 16

**IRURTZUN Un monstruo viene a verme filma Udako Zinema zikloaren barruan.**  
*Plazan, 22:00etan.*

## OSTEGUNA 17

**ALTSASU Gaueko pulunpa. Ogitartekoa eta freskagarria afaltzeko aukerarekin batera 12 urtetik gorako gazteek bainua eta bestelako jardueraz gozatzeko aukera izanen dute.**  
*Dantzalekuko igerilekuan,*  
**21:00etatik 23:00etara.**

## OSTIRALA 18

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.**  
*Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean, 19:00etan.*

## LARUNBATA 19

### Harleze eguna

**LIZARRAGA**

Mendian dagoen lezera joan-etorria festa giroan eginen dute lizarratarrek.

- **09:00ak** aldera abiatuko dira San Adrian ermitarantz.
- **10:30** inguruan, Lizarragako Kontzejuak auzatea eskainiko du ermitaren aldamenean. Eta indarberriturik Harlezerainoko bidea eginen dute.
- **11:30**ean iristea aurreikusten dute. Han sartu-atera eta Lizarragako bidean jarriko dira, herrian bazkaria izanen baita,
- **14:00**etan. Mahaitik jaiki ondoren, musika lagun, etxez etxeko errondan ibiliko dira lizarratarrek. Eguna borobiltzeko kontzejuak afaria eskainiko du, ohi denez, marmitakoa. Ondoren, parrandazaleak ordu txikitaraino lagunduko dituen dantzaldia izanen da.

### Sandindeiko erromeria

**Arbizu**

Aralar mendiaren magalean dagoen Sandindei bordaren inguruak, berriz ere, festa giroak hartuko ditu. Arbizuarrek, trikitilariak lagunduta,

- **11:30**ean hartuko dute harako bidea. Kalejira bordara iritsita, udalak aatea eskainiko du
- **13:00**etan. Ordurako bazkariaren prestaketa aurreratua izanen dute, halakoetan ohi denez, basoan majo bazkaltzen baita. Eta trikitilarien doinura joanen diren moduan, hala bueltatuko dira guztiak,
- **19:00**etan. Behin herrian dantzaldiak plazan segida izanen du. Arbizuarrek 2005etik ospatzen dute erromeria, San Juan festez aparte herriarrak festa-egun batean elkartzeko premiari erantzunez.

UHARTE ARAKILGO  
ARTZAI EGUNEKO  
ARGAZKI LEHIAKETA  
2017/08/27tik 2017/08/31ra

SARIAK:

- bi pertsonendako asteburuko egonaldia hotel batean.
- asteburuko egonaldia Sakanako landetxe batean
- bertako produktuen lotea

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) atarian parte hartu



“Hizkuntza bat ez da galtzen  
ez dakitenek ikasten ez dutelako,  
dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”



**LAKUNTZAKO UDALA**

[www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus)  
[info@lakuntza.eus](mailto:info@lakuntza.eus)  
tel. 948 576 015



LaKuntzaileok  
HERRIARRAREN PARTE-HARTZE PLANA



## IGANDEA 20

### Lakuntzako pertza erronomia

• **06:00etan** Aralarko santutegira joateko goizter mugituko dira lakuntzarrak. Astoa lagun eginen dute bidea. Hark gainean gosarirako beharrezkoak diren tripotak, ogia eta ardoa eramanez ditu. Izan ere, indarra hartzeko bide erdian geldialdia egiten baitute lakuntzarrek. Antza, geldialdia egiten duten paraje horretan noizbait pertza bota omen zitzaion.

• **06:00etan** Behin santutegira iritsi eta meza izanen da. Horren ondoren Lakuntzako Pertza elkarteak tripotak, ardoa eta ogia eskainiko ditu auzatean. Ondoren Bil-tokiko gazteen txanda izanen da, haiek santutegiko plazan Lakuntzako Pertza dantza dantzatzuko dute. Segituan lakuntzarrak Albi aldera mugituko dira, Guardetxe zenekoaren inguruan bazkaltzen baitute.

- **16:30etik 18:30era** dantzaldia izanen da eta herrira bueltan.
- **20:00etatik aurrera.** Festak ordu txikiak arte segituko du. Abuztuko Ama Birjinaren egunaren ondorengo igandean ospatzen da Lakuntzako Pertza, garai bateko kontakizunak lakuntzarrak haserrarazten zituenak. Antza, Asulbizio festa ospatzera Aralarko santutegira joaten zirela, urteren batean asto gainean gosariarekin zeramaten pertza bota eta maldan behera joan zen. Kontakizunaren arabera tripotetako batek Uharteko erroteria jo eta betoker utzi zuen. Lakuntzarrak zirikatze ohikoa zen garai batean honako galdera egitea: *Lakuntzako pertzak ze fin ein zuben?* Eta lakuntzarren ohiko erantzuna izan zen: *zuben aitek eta amak izan zubena.* Guztiari umorez heldu eta izen bereko elkarte eta ospakizuna egin eta antolatatu zituzten lakuntzarrek.

## SATRUSTEGIKO FESTAK

### OSTIRALA 18

- 20:00 Txupinazo** Puzgarriak eta kilikiak.
- 20:15 Arakilgo Batukada.**
- 20:30 DJ Asierrekin musika.**
- 22:30 Herri afaria.**
- 01:00 Dj Asierrekin musika.**

### LARUNBATA 19

- 12:00 Eritzeko erraldoiak** kiliki eta puzgarriak.
- 13:30 Bermuta txalapartarekin.**
- 14:00 Lasaña txapelketa.**
- 15:00 Autogestionatutako herri bazkaria.**
- 17:00 Haur jolasak.**
- 19:00 Pilota partidak.**
- 20:00 DJ musika.**
- 22:00 Zezensuzkoa.**
- 00:30 Dj Asierrekin musika.**

### IGANDEA 20

- 12:00 Meza nagusia.**



**13:00 Otamena eta Luisiana** bikotearen rantxerak.

**17:00 Magia** ikuskizuna.

**19:00 Tirabike txapelketa** eta saria ematea.

**19:30 Dj Asierrekin musika.**

**22:00 Hau pena nik!**

### LARUNBATA 19

**IRURTZUN** Iratxo elkarteak mendi taldeak Pirinioetara irteera antolatuta du astebururako. *Elkartetik, goizean.*

**ALTSASU** Altsasutik Aralarko santutegirako 120 km-ko joan-etorria eginen du zikloturista taldeak. *Baratzeko bide plazako lokomotoratik, 08:00etan.*

**UHARTE ARAKIL** Aralarko santutegiko arkeologia-indusketan bisita gidatua dago larunbatero. [info@aditu.info](mailto:info@aditu.info) e-postaren bidez egin daiteke eskaera. *Abside ondoan, 11:00etan.*

ILEAPAINDEGIA  
BIZARTEGIA  
IÑAKI  
684 315 869  
Nagusia 14  
ETXARRI ARANATZ

ilaia  
ileapaindegia  
948 56 70 71  
ilaia26@hotmail.com

ARALAR  
FERRETERÍA • BURDINDEGIA •  
ondo pasa festetan  
LAKUNTZA  
Uriz kalea, 18 behea  
948 464 806  
administracion@aralarferreteria.com

APUR  
OGI BERRI  
ELKARCAI NATURALEN BIERMEA  
Mikel Arregi 7 · Lakuntza  
669 426 335  
iratxoxo@hotmail.com

HOSTO  
GORRI  
altzariak  
altzariak eta kortinak  
Zugarreta 7 · Etxari Aranatz  
948 460 359 · 679 414 731  
www.hostogorri.com

ARTZAI EGUNA 2017  
2017-08-27  
50. URTEURRENA  
UHARTE ARAKIL  
50. URTEURRENA  
50 EGUNEKO EGITARAUUA  
Nafarroako Erresuma  
Reyno de Navarra  
IDIAZABAL  
NAFARROAKO INTERES TURISTIKOKO FESTA

## ASTEAZKENA 23

**IRURTZUN** Paperezko hegazkinak filma Udako Zinema zikloaren barruan.  
Plazan, 22:00etan.

## OSTEGUNA 24

**ALTSASU** Gaueko pulunpa.12 urtetik gorako gazteek bainua eta bestelako jardueraz gozatzeko aukera izanen dute. Afaltzeko aukera ere izanen dute.  
Dantzaleku igerilekuan, 21:00etatik 23:00etara.

**ALTSASU** Zeruaren behaketa. Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak izarrak behatzeko aukera emanen du, doan.  
Dantzalekuan, 23:00etan.



## IRANETAKO FESTAK

## OSTEGUNA 24

20:30 Frontenis txapelketako finala.  
21:30 Herri urdai-jatea.  
00:00 Dantzaldia dj-rekin.

## OSTIRALA 25

12:00 Etxajua.  
13:30 Paella lehiaketa.  
15:00 Paella parte-hartzaileen dastaketa.

20:00 Dantzaldia Agirre taldearekin eta txokoan ardoa.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:30 Dantzaldia dj-rekin.

## LARUNBATA 26

11:00 Hamaiketakoa: baba txikiak txerri buztanarekin.  
12:30 Mus txapelketa azkarra.  
17:00 Txarangarekin kalejira herria barna.  
20:30 Mariatxisak eta txokoan ardoa.  
00:30 Dantzaldia dj-rekin.

## IGANDEA 27

11:00 Haurrendako puzgarriak.  
15:00 Herri bazkaria  
17:00 Ginkana  
20:00 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin eta txokoan ardoa.  
23:00 Hau pena nik!

## ASTEARTEA 29

13:00 Patroiaren omenezko meza.  
13:45 Adinduendako otamena.  
Oharra: egitaraua bestelako ekitaldiekin osatuko da.

## OSTIRALA 25

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.  
Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean, 19:00etan.

**SAKANA** Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin.  
Plazan, 20:00etan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa.  
Udaletxe parean, 20:00etan.

## IHABAR

### Hamargarren antzezlan

Horixe ari da prestatzen Ihabarko antzerki taldea. Efemerideak merezi duelako, 2008tik egin dituzten antzezlan guztien laburpena jasotzen duten bideoa proiektatuko dute emanaldien aurretik. Bi izanen baitira emanaldiak, ostiralean eta larunbatean.  
Bestela, 16 bat aktorek Jon Barbarinen esanetara zinema ardatz duen antzezlan prestatu dute. Giuseppe Tornatoreren Cinema Paradiso filma izanen dute abiapuntua: herri bateko zinema txikia irudikatuko dute. Proiektioez gizon bat arduratuko da eta hari laguntzen haur bat izanen da. Baina proiektorea matxuratu eta haurrak hura konpondu ondoren filma beharrez hainbat filmetako zatiak ikusgai izanen dira. Hau da, aktoreek zinemaren historia erreparatuz esketx segida bat jokatu ditzute. Plazan, 22:00etan.

## LARUNBATA 26

**UHARTE ARAKIL** Aralarko santutegiko arkeologia-indusketan bisita gidatua dago larunbatero. info@aditu.info e-postaren bidez egin daiteke eskaera.  
Abside ondoan, 11:00etan.

**ERROTZ** Arakilgo herriak hiru festa egun izanen ditu, larunbatean hasi eta astelehenean despedituko direnak.



GUAIXE

**LAKUNTZA Dantzaldia Xaiborrekin**  
Abuztuak 29, asteartea, herriko plazan, 20:00etan.

## LAKUNTZAKO FESTAK

## LARUNBATA 26

09:45 Zabalarteren eskutik Guardetxera igoera herrikoia.  
11:00 Parkea martxan areto futboleko txapelketako finalak.  
11:30 Diana Lakuntzako txistulariekin.  
12:00 Ezkila errepika.  
12:30 Txupinazoa.  
12:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren irteera, Haizadi gaitariekin.  
13:00 Zapi banaketa 2016ean jaiotako haurrei.  
13:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.  
13:25 Areto futboleko eta Guardetxeko igoerako sari banaketa herriko plazan.  
13:45 Brindisa Haizea elkartean.  
15:00 Elkartasunaren aldeko bazkaria plazan.  
Arratsaldean dantza-poteoa Haizadi gaitariekin.

16:30 Haurrendako apar festa Larraina plazan

18:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia plazan.

19:30 Larrain dantza.

19:30 Buruhandien irteera.

20:00 Auzatea Correfoc-eko lagun eskutik.

20:00-22:00 Dantzaldia Akerbeltz taldearekin.

21:30 Zezensuzkoa.

00:00-00:45 Correfoc Kataluniako deabru federazioak eskainia

01:00-03:30 Dantzaldia Akerbeltz taldearekin.

## IGANDEA 27

12:30 Meza Nagusia, parrokiak antolatua.

13:00 Auzatea Lakuntzako Pertza Elkartean eskutik.

13:00 Haize Berriak bandaren kontzertua.

17:30 Bizikleta zinten jolasa Aldababide plazan (kaskoa derrigorrezkoa izango da)

18:00 Euskal Herriko 3. mailako aizkolari final-aurreko txapelketa.

**IGOA** arroindegio

EZ-ETZA BETIUA EZ-ETZ

948 460 111 · Arkuetobide koleo · Etxorri Aronatz

**xapatero** taberna

Ongi pasa festetan!

948 460 162 · Etxarri Aranatz

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
HARATEGI ETA URDAITEGIA

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Ongi pasa festetan!

Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak  
948 576 067 · Herriko plaza z/g · LAKUNTZA



GUAIXE

**LAKUNTZA Kalderete lehiaketa**

Abarrategi kalean egingo da urtero bezala.  
Abuztuak 28, astelehena, 11:30ean.

**19:00 Antzerki-dantza ikuskizuna**  
Amicoren eskutik.

**19:30 Buruhandien irteera.**

**20:00 Kontzentrazioa.**

**20:15 Auzatea ehiztarien eskutik.**

**20:15-22:00 Dantzaldia.**

**21:30 Zezensuzkoa.**

**00:30-02:30 Dantzaldia.**

**ASTELEHENA 28****AITTUN-AMIÑEN EGUNA**

**11:30 Kalderete lehiaketa.**

**12:00 Meza nagusia, parrokiak**  
antolatua.

**12:30 Bizikleta zinten jolasa**  
Aldababide plazan (kaskoa  
derrigorrezkoa izango da).

**13:00 Auzatea gurasoen eskutik.**

**13:00 Los Tenampa mariatxien**  
ikuskizuna.

**14:00 Kaldereteko plater bilketa eta**  
sari banaketa.

**14:30 Aittun-amiñen bazkaria plazan.**

**16:00 Sokamuturra eta animaliak**  
parkean.

**17:00 Kadeteen mailako bizikleta**  
proba.

**17:00 Aittun-amiñendako dantzaldia**  
Amets bikotearekin bazkariaren  
ondoren

**20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren**  
eskutik

**19:30 Buruhandien irteera.**

**20:00-22:00 Dantzaldia Joselu**  
Anaiak taldearekin.

**21:30 Zezensuzkoa.**

**00:30-02:30 Dantzaldia Joselu**  
Anaiak taldearekin.

**ASTEARTEA 29****HAURREN EGUNA**

**11:30 Diana Lakuntzako**  
txistulariekin.

**11:30-14:00 Puzgarriak plazan.**

**12:30 Erraldoi eta buruhandien**  
konpartsaen irteera, Haizadi  
gaitariekin.

**13:00 Auzatea Gure Nahiaren eskutik.**

**IGANDEA 27****50. Artzai Eguna**  
**Uharte Arakilen**

Mende erdi artzainak omentzen.  
Aralar Mendi elkarteak antolatzen  
duen Artzain Eguna 50 urte  
betetzen ditu aurten.

Uharte Arakildik pasatzen  
denak, esaterako, gazta, ardi,  
ardi-motzaile, artaldearen erabileran  
txakur trebezia lehiaketak opatuko  
ditu. Eta, horrekin batera, salmenta  
postuak, artisauak, gazten salmenta  
postuak, lanabesak eta beste...  
Guztia artzaintzarekin lotuta.

**Artzainen omenaldi festa**

- **10:00etan** Irekiera ekitaldia.  
Epaimahaiaren osaketa.
- **10:30etik 14:30era** XXXVI.  
Nafarroako ardi latxen

esnearekin egindako gazta  
lehiaketa. Gazta-feria eta  
artisautza-feria.

- **10:30etik 13:30era** XXXIV.  
Nafarroako ardi latxen  
erakusketa eta  
esne-ekoizpenaren lehiaketa.  
XIV. latxa arrazako aziendaren  
estatuko lehiaketa.

- **11:00etatik 12:00etara** XXV.  
Euskal artzain txakurren  
erakusketa.

- **11:00etatik 13:00etara** XXX.  
Nafarroako ardi-motzaileen  
txapelketa.

- **11:30ean** Artalde herri  
pasako da.

- **12:00etan** Omenaldia.

- **12:15ean** XXIII. ardiki  
gisatuaren lehiaketa eta  
dastatzea.

- **12:45ean** XXIII. Nafarroako  
ardoaren dastatzea.

- **13:30ean** Lehiaketen  
sari-banaketa. Gazta  
irabazlearen enkantea.

- **14:30ean** Herri bazkaria  
pilotalekuan.

- **17:00etan** L. Nafarroako  
artzain-txakurren txapelketa  
Geinberan. Euskal Herriko eta  
Oñatiko nazioarteko  
txapelketetarako sailkagarria.  
Omenaldia.

\*Goizean zehar: gazten eta  
eskuz eginiko beste  
produktuen erakusketa;  
eskulanen erakusketa:  
kaikuak, egurrezko uztaiak,  
apaingarriak, zeramika, egurra,  
ardazlariak, taloak, jakiak...  
Euskal dantza, musika taldeak  
eta joaldunak.

[www.artzaieguna.com](http://www.artzaieguna.com). Artzai eguneko informazio guztia.

**16:30-19:00 Puzgarriak plazan.**

**19:30 Buruhandien irteera.**

**20:00 Auzatea Lakuntzako Udalaren**  
eskutik.

**20:00-22:00 Dantzaldia Xaiborrekin.**

**21:30 Zezensuzkoa.**

**00:30-02:30 Dantzaldia Xaiborrekin.**

**20:00-22:00 Dantzaldia**  
Elebitan taldearekin.

**21:30 Zezensuzkoa.**

**00:30-02:30 Dantzaldia**  
Elebitan taldearekin.

**OSTEGUNA 31****GAZTE EGUNA**

**13:00 Auzatea**  
Biltokiren eskutik.

**13:00 Musika plazan.**

**15:00 Bazkaria**  
Bertsolariak eta Piropro lehiaketa.

**17:00-20:00 Elektrotzaranga herriko**  
kaleetan zehar.

**19:30 Buruhandien irteera.**

**20:00-22:00 Kontzertua**  
herriko plazan.

**21:30 Zezensuzkoa.**

**00:35 Kontzertuak**  
herriko plazan.

**IGANDEA 27**

**URDIAIN** Sarabera txango  
ilustratua antolatu du  
Aitziber elkarteak bere 50.  
urteurrenaren barruan.  
Ibilaldian geldialdiak egingen  
dira eta tokian-tokiko historiari  
eta ingurumenari buruzko  
azalpenak emanen dira. Herriko  
bi tabernetan eman daitezke  
izena.  
*Igerilekueetatik, 10:00etan.*

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal  
Herrira kontzentrazioa.  
*Foru plazan, 20:00etan.*

ALTSASUKO  
**GARAGARDO** 2017  
AZOKA  
Garagardo festa  
ABUZTUAREN 31tik IRAILAREN 3ra  
• IORTIA KULTUR GUNEKO KARPAN.



*gu ere oporretara goatz!*

zatoz gurekin  
kostaldera





Arakildar berriei zapia jarri zieten. GUAIXE

## Arakilgo eguneko euriarendako aterpeak opatu zituzten

Ibarraren egunean udalak Julen Martija pilotaria omendu zuen eta hiru umeri ongi etorria egin zien

### HIRIBERRI

Eguraldiak ez zuen lagundu Arakilgo egunean. Itxasperi ermita erromanikoa, beste behin, arakildarren bilgune izan zen. Makina bat izan ziren jai eguna baliatuz Arakilgo Udalak antolatutako ospakizunera elkartu zirenak. Ermitaren kanpoko aldean egoteko giro handirik ez zegoenez, otamenerako jarritako estalpean elkartu ziren arakildarrak.

Ibarreko abesbatzak kantatu zuen mezaren akaberan. Aralarko aingerua gurtzeko aukera izan zuten fededunek. Elizkizuna despedituta, ermitak berak hartu zuen udalak urtero egiten duen omenaldia. Joan den urteko otsailaren 21ean profesionaletan debuta egin zuen Julen Martijak jaso zuen aitortza. M<sup>a</sup> Paz Gonzalez Sagues alkatearen eskutik ermitaren beraren margolan bat eta ibarreko ttattarra jaso zituen Etxeberriko pilotariak. Dantzariak aureskua dantzatu zioten.

Omenaldiaren ondoren, joan den urtean jaiotako arakildarrei ibarrera harrera egin zien udalak. Hiru haur jaio ziren: David Abajo Castro (Zuhatzu), Pablo Artieda Perera (Izurdiaga) eta Iera Moreno Mata (Ihabar). Ekitaldian haietako bi izan ziren eta bakoitzarendako ttattar bat izan zen. Kanpoko aldean egin zen otamenaren ondoren ospakizuna Hiriberrira lekualdatu zen. Bazkaltzera 260 pertsona elkartu ziren eta iluntzera arteko egitarauaz gozatu zuten.



Martija opariekin. GUAIXE



Estalpeak jarri zituzten. GUAIXE

## Aralarko aingeruarekin

Gero eta haur gehiago daude haren zaintza jasotzen dutenak eta haren lagun direnak. Igandean egindako aurkezpenean 80 bat izan ziren aingeruaren irudia gurtu eta haren lagun direla adierazten duen pergaminoa jaso zutenak. Horrela, gurasoek euren seme-alabei Aralarko santutegiarekiko lotura pasatzen diete, haiek jaso bezala.



NEREA MAZKIARAN

## Bakaikuko festei agur

Aurreko ostiralean hasi eta asteartean despeditu ziren festak. Denetatik izan da Bakaikun, adin guztietarako eskaintza. Inguruko herrietako sakandarren bisita jaso zuten bakaikuarrek eta auzateak, aizkora, pilota eta beste ez ziren falta izan. Aipatzekoa da La Banda del Jefe Bigunen igandeko kontzertuan giro bikaina egon zela.



## San Migelen zain orain

Herenegun despeditu zituzten olaztiarrek Santa Anaren omenezko festak. Gure Esku Dagoko kideek piztu zuten etxajua, "izan zorionsu herri libre batean" esanez eta festa onak pasatzeko opatuz. Aurretik, azken urtean jaiotako 13 umek herriko ttattarra jaso zuten. Musika, erraldoiak, ikuskizunak, barrakak eta beste izan dira festetako oinarri.



## Irurtzunen aldapan gora

Biarnoko Laas herrikoekin senidetu zen eskorga-kronoigoera bere 21. edizioan. 13 bikote lehiatu ziren. Proban sute bat ere izan zen eta Irurtzungo suhiltzaile prestuek harekin azkar asko bukatu zuten. Lehiari dagokionez, horrela osatu zen podiuma: Jota Rekalde eta Iñaki Azkona, Ipe Lizarraga eta Txape Iriarte eta Iker Ansorena eta Mikel Rekalde.



LARRAITZ AMADOZ LAZKANO

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

LOKALA ERRENTAN  
EMAN

**Dorrauko jaietako bi tabernak alokatzen dira.** Jaiak abuztuak 14tik 19ra izango dira. Interesatuak dei dezala 608 520 769 edo 645 706 958 telefonora, abuztuaren 5a baino lehen.

## LANA

NEGOZIOAK  
LAN ESKAINTZAK

**Lakuntzako Kale Txiki tabernak bi langile behar ditu lanaldi osoan:** sukaldari laguntzailea eta ontziak garbitzeko langilea. CV eskura eman bertan

## OHARRAK

**Odol-emaileak.** Ziordian: abuztuaren 9an, 19:30-20:30. Arbizun: irailaren 6an, 17:00-20:30. Olaztin: irailaren 7an, 17:00-20:30.

**Otaiko ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta kutxe-

tan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabxi) telefonoetara hots egin dezatela.

**Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresariaren Elkartek langabeei eta lan bila dabiltzanendako aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Josefina Arregui kliniko baxidea izan nahi baduzu,** urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sondotzea. Argibide gehiago: 948 5 6 70

10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

## OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

## GALDUTAKOAK

**Betaurrekoak galdu ditut.** Urdinak dira, eta gerturako graduatuak. Altsasuko Eroski-ren inguruan galdu nituen. Opatu dituenak, mesedez, hots egin dezala 948 46 00 27 telefonora, Galartxa iturgintza.

**Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditut:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.com

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

## JAIOTZAK / EZKONTZAK / HERIOTZAK

## JAIOTZAK

• **Elene Galan Senar,** uztailaren 18an Altsasun.

## HERIOTZAK

• **Maria Carmen Arza Lezea,** uztailaren 24an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

## ESKELAK

## OROIGARRIA

## Enrike Goikoetxea Askorbe "Aspi"



Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Ez zaitugu ahaztuko.

79ko kintoak

## URTEURRENA

## Gorka Echarri Soto

I. urteurrena



Orain dela urte bat gure aldamenetik joan zinen, baina gure bihotzetatik sekula ez zara joanen.

2016ko abuztuaren 17an hil zen. Urteurrenako meza, abuztuaren 15ean, asteartean, goizeko 11etan, Lakuntzako San Salvador elizan ospatuko da.

Zure familia.

## OROIGARRIA



## Modesta Mendiluze Zelaia


Zure goxotasuna eta maitasuna gure bihotzetan geratzen dira. Eskerrik asko abuela Modesta.

Unai, Maria eta Dani, Erku eta Eneko, Idoia eta Unai; Arane, Irune eta Saioa

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75** edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus) ► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €, prezio hauek BEZa barne dute. ► Bazkideek % 10eko deskontua dute. ► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.


## EGURALDIA ASTEBURUAN

## Ostirala, 28




Arratsaldean eguzkia agertuko da. Hodeiak desagertuko dira.

## Larunbata, 29




Giro eguzkitsua uda sasoiko tenperatura larunbatean.

## Igandea, 30



Eguzkia nagusi baina tenperatura beherantz.

## Astelehena, 31



Temperaturaren jeitsiera mantenduko da.

40 tanatorios  
IRACHE  
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
www.tanatoriosirache.es



## OBJETIBOTIK

## Altsasuarrak Bargagainen bildu ziren

Igandean Altsasuko Mendigoizaleak taldeak LVI. Bargagaingo Igoera antolatu zuen. Goizeko 09:00etan jaurti zuten suziria udaletxe paretik, eta mendizaleek elkarrekin ekin zioten Altsasuko Bargagaingo gurutzea igotzeko bideari. Meza ondoren, mendigoizaleek auzate bikaina prestatu zuten, eta Altsasuko Udalak zilarrezko katiluetan dastatzeko ardoa eskaini zuen. 1.156 metroko alturan zortzikoa dantzatzek bere zailtasuna izan behar du, baina altsasuarrak ez ziren kikildu. Bitartean, bildutakoek Altsasuko auzipetuak izan zituzten gogoan.

Erromerian Altsasuko Mendigoizaleak taldeak urdaiazpikoa zozketatu zuen eta 292 zenbakia izan zen zorteduna. Altsasuko familia bati tokatu zitzaion.



ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK

## ZORION AGURRAK



**Maddi Gastaminza eta Olatz Oroz**  
Maddik atzo eta Olatzek abuztuaren 8an... 10 URTE! Zeinen handiak urdiaindar nesakiak, eskuko hatz guztiak zabal-zabal! ZORIONAK politiek, gustura ospatuko dugu elkar!!!! Zuen familien partez.



**Aritz**  
ZORIONAK txapelduna!! Muxu handi bat eta oso ondo pasa!



**Joanes, Jon, Adur eta Aritz**  
ZORIONAK laukote!! Noiz geldituko gara afaltzeko? Ongi pasa.



**Miren**  
Zorionak Prexioxi!!! 3 urte betetzen dituzu astelehenean!!! Muxu asko aitaxo, amatxo eta Aneren partez!



**Miren**  
Zorionak pitusina! 3 urte beteko dituzu astelehenean eta bizkotxo handia jango dugu ospatzeko. Muxu pila aiton-amonen partez!

**Zorionak zure urtebetetzean ta urte askotarako**

Argazkiak emateko lekukoak

Altsasu: Foru plaza 23-1 zorionaguiak.eus - Ordainketak: Guaiakeren bolejoan edo ondoko kontu zenbakian egun ditutela: ES56 3035 0018 47 01 81012564

\*Eta orain 46 argazkiak eta Pirritx, Porrotxe eta Marimotzenen ugarri-papera odoan! Bazkideak: 3.50€



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ilxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860





Finalak jokatu eta gero sari ematea egin zen eta finalista guztiek trofeoa jaso zuten. UTZITAKOIA

## Sakanako udako pilotaririk onenak

**PILOTA** Sakanako Udako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren asteartean, Olaztiko festetan, Sutegik antolatuta. Guztira 9 final jokatu ziren, giro paregabearen

Olaztiko Sutegi klubak, Sakanako pilota eskolen, Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako Pilota Federazioaren

laguntzarekin antolatutako Sakanako Udako Pilota Txapelketako finalak asteartean jokatu ziren, Olaztin. Guztira 120 pilotari lehiatu dira txapelketan.

tako finalak asteartean jokatu ziren, Olaztin. Guztira 120 pilotari lehiatu dira txapelketan.

### Sakanako Udako Txapelketako finalak

#### Aurrebenjaminak

Lizarraga-Etxeberria (Irurtzun) 18 /  
Gurmindo-Sarazibar (Sutegi) 6

#### Umeak A:

Amiano-Yaben (Irurtzun) 18 /  
Etxeberria-Okiñena (Irurtzun) 4

#### Umeak 1:

Ulaiar-Igoa (Pilotajauku) 18 /  
Zelaia-Eskudero (Aldabide) 10

#### Kimuak 1:

Senar-Apaolaza (Lakuntza) 13 /  
Rubio-Lizarraga (Sutegi) 18

#### Kimuak A:

Sanchez-Sarasibar (Oberena) 18 /  
Baztarrika-Berastegi (Aldabide) 7

#### Haurrak A:

Erdozia-Lizarraga (Aldabide) 18 /  
Etxeberria-Lopez (San Migel) 7

#### Haurrak 1:

Peral-San Roman (Pilotajauku) 8 /  
Ulaier-Agirretxe (Pilotajauku) 18

#### Kadeteak:

Otxoa-Ganboa (Oberena) 18 /  
Berekoetxea-Berastegi (Irurtzun) 15

#### Gazteak:

Aristegi-Ballerena (Txaruta) 14 /  
Txoperena-Santamaria (Aurrera) 18

### PILOTA Ezkurdia Rezustarekin, Andra Mari Zurian

Joseba Ezkurdiak eta Beñat Rezustak bikote ikusgarria osatu zuten sanferminetan; txapeldun handiak izan ziren. Aspek berriki hasiko den Andra Maria Zuriaren Torneorako apustu berbera egitea erabaki du eta Ezkurdia eta Rezusta izango dira torneoko bikote faboritoe-netakoa. Andra Maria Zuriaren Torneoko finalerdian, Altuna III.a eta Merino II.a izango dituzte aurkari, agorrilaren 6an, 17:00etan (ETB1). Beste finalerdia agorrilaren 5ean jokatu dute Olaizola II.a-Larunbek Urrutikoetxearen eta Albisuren kontra. Final handia agorrilaren 8an jokatu da.

Bestalde, Julen Martijak Elezkano II. arekin osatu du bikotea, Gasteizko Andra Mari Zuriaren barruan agorrilaren 7an antolatutako Rosado Homenaje ardoaren desafioan Lasoren eta Untoriaren kontra aritzeko. Aipatzekoa da asteartean, Arakilgo egunean, omenaldia egin ziotela Etxeberriko pilotariari.



Jaioterrian egingo diote omenaldia.

### PILOTA Aitor Zubieta omenduko dute bihar Etxarri Aranatz

Gure Pilota Elkartek bihar, larunbatean, 17:30ean, pilota eta pala partidak antolatu ditu Etxarri Aranazko festen egitarauaren barruan. Eta jaialdi hori aprobetxatuko dute erretiroa hartu duen Aitor Zubieta pilotaria omentzeko. Zubietak hainbat urte daramatza aipatu elkartean klaseak ematen eta, horrek omenaldia are bereziagoa egingo du.

### PILOTA Joanes Bakaikoa Bizkaiko Torneoko finalera

Asteburuan hasi zen IV. Bizkaiko Torneo. Taldeka jokatzeko ari da torneoa. Horrela, igandean, Anboto taldeak –Joanes Bakaikoa, buruz buru, Bengoetxea VI.a-Albisu, binaka, eta Victor, lau t'erdian–, Kolutza taldea –Erasun, Urrutikoetxea-Larunbe eta Laso– hartu zuen menpean Etxebarrin jokatu dute jaialdian. Ostiralean, Anboto Oiz taldearen

kontra aritu zen Arrigorriagan, eta Anboto izan zen txapelduna. Jaialdi honetan Bakaikoak 18 eta 15 irabazi zion Peña II.ari, buruz buru, baina igandeko jaialdian Erasunek 18 eta 13 utzi zuen menpean etxarriarra. Dena den, Anboto taldea izan da agorrilaren 22an jokatu den final handirako sailkatu dena.

Oraindik ez da erabaki zein den beste finalista, baina Jose Javier Zabaletaren Ganekogortak taldeak galdu egin zuen Gorbela taldearen kontra.

Agencia Bakarra  
Aseguruen prezio hobarenean

**Allianz** Aseguruak

HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.

etxarri@sayasmaz.com  
948 111 411  
Larrañeta 19 behea  
ETXARRI ARANATZ

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Aliprox**

948 576 246  
Larrañeta z/g  
LAKUNTZA

**Lizardi**

Amaia Benjumea

Ongi pasa festetan!

649 444 018  
Nagusia 12, 1.B  
Etxarri Aranatz

Ongi pasa festetan!

**TRASKIL**  
MODA DENDA

UDAZKEN-NEGU DENBORALDIA

ETXARRI ARANATZ



# Aramendia Euskadiko eta Nafarroako txapelduna

**TXIRRINDULARITZA** Iosu Etxeberria juniorren Nafarroako txapelduna eta Euskadiko 3.a sailkatu zen eta Ailetz Lasa Nafarroako 3.a, Bakarne Gonzalez bezala. Kadeteetan Unai Aznar Nafarroako txapelduna izan zen eta Leire Maiza hirugarren nafarra

Urbasa Txirrindularitza Taldeak antolatuta, V. Iturmendi Trofeoa Erlojupekoko jokatu zen igandean. Iturmendiko Trofeoa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izan zen kadeteen, juniorren eta afizionatuen mailan eta Euskadiko Saria juniorren mailan eta emakumezkoen kadete eta afizionatuen mailan.

Afizionatuetan 14 km zituzten aurrez aurre, Arbizuko industrialderaino joan-etorria. Jorge Azanza altsasuarrak zuzentzen duen Euskadi Fundazioko Diego Lopez izan zen probako irabazlea (17:26) eta Nafarroako txapelduna. Sakandarretan azkarrena Rural Kutxako Eneko Aramendia iturmendiarra izan zen, sailkapenean bosgarrena (18:35). Emakumezkoetan Lourdes Oiarbide izan zen Iturmendin azkarrena (19:36) eta Euskadiko txapelduna. Nafarroako txapelduna Ainara Elbusto (Bolivia taldea) sailkapenean bigarrena izan zen (20:07).

## Josu Etxeberria Nafarroako txapelduna

Juniorretan, Elproex iturriberoko Oier Lazkanok osatu zituen azkarren erlojupekoko 14 km-ak (17:47). Bera izan zen Euskadiko txapelduna. Aldiz, helmugan hirugarrena Aralarko Intersport



Euskadiko eta Nafarroako txapeldunak, Aramendia, Etxeberria eta Aznar tartean.

Irabiako Josu Etxeberria iturmendiarra izan zen Nafarroako txapelduna (18:55) eta Euskadiko hirugarrena. Eta proban 9.a sailkatu zen Burundako Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa zior-diarra hirugarren nafarra (19:14). Nafarroako txapeldun izateagatik pozik zegoen Iturmendikoa.

## Maialen Aramendia Europako Txapelketara

Emakumezkoetan Sopela taldeko Sara Martin izan zen azkarrena (21:26). Segundo bat aterazioan Maialen Aramendiari (CAF)

Turnkey Engineering). Sara Martin Gaztela eta Leongoa denez, Aramendia izan zen junior mailako Euskadiko txapelduna eta Nafarroako txapelduna. Bakarne Gonzalez altsasuarrak (Bolivia) 3. nafarra izan zen.

Aste bat lehenago errepideko Euskadiko txapelduna izatea lortu zuen Aramendiak Tolosan; beraz, bi segmentuetan dugu Euskadiko txapelduna. Valentziako Itzulian aritzetik zetorren iturmendiarra, tripako arazoak tarteko, eta, hala ere, etxean irabazteko gai izan zen. "Den-

boraldi hasieran egin beharreko helburuen artean markatu nuen hau. Larunbatean etorri nintzen Valentziako itzulitik. Tripetatik gaizki egon nintzen azken egunean eta ezin izan nuen proba bukatu. Nekatuta nengoen, baina hona etorri eta biziberritu, Sakanako haize hauek! (kar kar). Ongi berotu dut eta ongi aterada. Aurreko astean errepideko Euskadiko Txapelketa lortu nuen eta orain erlojupeko Euskadiko Txapelketa eta oso pozik nago" aipatu zigun Iturmendikoak.

Hurrengo astean, agorriaren 2tik 6ra, Europako Txirrindularitza Txapelketan arituko da Maialen Aramendia, Espainiako selekzioak deituta, Herning hirian. Lasterketan eta erlojupekoan parte hartuko du iturmendiarrak eta onena opa diogu.

## Unai Aznarren erakustaldia

Bukatzeko, kadeteetan 10 kilometroko buelta zuten, Etxarri Aranatz arteko joan-etorria. Hainbat sakandarrek ezin izan zuten Iturmendin aritu Nafarroako selekzioarekin lanean zeudelako, Txuma proban.

Sekulako markak egin ziren. Esaterako, Burundako Quesos Albeniz taldean dabilen Unai Aznarrek sekulako erakustaldia eman zuen. Corteseokak hegan egin zuen bizikleta gainean (13:29). Bera izan zen Nafarroako txapelduna, merezimendu osoz. Tafallako El Caserio taldean dabilen Ion Gil bosgarrena sailkatu zen (14:56). Eta emakumezkoetan Gipuzkoa-Ogiberri taldeko Garazi Estevez izan zen Iturmendiko erlojupekoko txapelduna (15:54). Nafarroa Ermitagaña taldeko Leire Maiza etxarriarra 8.a sailkatu zen eta Nafarroako sailkapenean hirugarrena izan zen (17:31).

## Sakandarrak VI. Iturmendi Trofeoan

Erlojupekoko denborak ikusgarriak izan ziren.

### Afizionatuak, gizonak

1. Diego Lopez (Eusk):	17:26
5. E. Aramendia (Rural):	18:35
6. Asier Ormazabal (Liz):	18:40
8. Pablo Villar (Quick):	18:58
10. Odei Juango (Rural):	19:40
15. Alex Uncilla (Quick):	21:08

### Afizionatuak, emak.

1. L. Oiarbide (Bizkaia):	19:36
---------------------------	-------

### Juniorrak, gizonak

Sakandarrak juniorren mailan	
1. Oier Lazkano (Elproex):	17:47
3. Josu Etxeberria (Irabia):	18:55
9. Ailetz Lasa (Q. Albeniz):	19:14
24. Hodei Zia (Q. Albeniz):	20:41
26. B. Etxezarreta (Irabia):	20:55
32. I. Fernandez (Albeniz):	21:17
33. I. Galarza (Irabia):	21:27
36. X. Mauleon (Irabia):	22:03
37. Iker Cerviño (Irabia):	22:04
42. Iosu Jaca (Albeniz):	22:11
50. Unai Lizarraga (Irabia):	23:36

### Juniorrak, emakumeak

1. Sara Martin (Sopela):	21:26
2. M. Aramendia (CAF):	21:27
10. B. Gonzalez (Bolivia):	23:41

### Kadeteak, gizonak

1. Unai Aznar (Q. Albeniz):	13:29
5. Jon Gil (El Caserio):	14:56
9. U. Villalobos (Albeniz):	15:11

### Kadeteak, emakumeak

1. Garazi Estevez (Gip.):	15:54
8. Leire Maiza (Nafarroa):	17:31
10. Joana Irastorza (CAF):	18:11
21. Maria Beraza (Naf.):	18:51

948 576 286  
Mendigain kalea, 5  
LAKUNTZA

Ongi pasa festetan!

HORTZ KLINIKA  
Etxarri  
Eguerdietan zabalik

948 460 315  
Kale Nagusia 27  
Etxarri Aranatz

LEKU ONA  
taberna

Afaltzeko bokata  
goxo-goxuek!

Ongi pasa festetan!

JAIK BAI,  
BORROKA ERE BAI!

KALE TXIKI TABERNA

ONGI PASA  
FESTETAN!

Menu 11 €  
Asteburuko menua 25 €

Lakuntza  
Telf: 948 57 60 09

Oskar Lasa  
ETXARRI ARANATZ

TAXI  
ZERBITZUA  
607 669 798

# Ioseba Fernandez azkarrena 200 metroan

**IRISTAKETA** Polonian jokatu diren World Games edo Munduko Jokoetan 200 metroko erlojupekoan urrezko domina lortu du iturmendiarrak. Irailean Iristaketa Mundialak jokatu dira Txinan, iturmendiarrarendako denboraldiko proba garrantzitsua

Egunotan Iristaketako Munduko Jokoak jokatu dira Polonian. Espainiako selekzioarekin lehiatu da Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrak, Europako txapelketan urrezko bi domina eta zilarrezko domina bat lortu berri. Astelehenean, erlojupeko 200 metroan iturmendiarrak azkarren geratu zuen kronoa (16.897 segundo) eta urrezko domina lortu zuen. Bere atzetik Simon Albrecht alemaniarra (16.907 segundo) eta Gwendal Le Pivert frantziarra (16.930 segundo) sailkatu ziren. Hurrengo helburua irailean Txinan jokatu diren Munduko Iristaketa Txapelketak dira.



Ioseba Fernandez, bigarrena ezkerretik, urrezko dominarekin. ESPAINIAKO FEDERAZIOA



June Kintana, eskuinean. UTZITAKOA

## DISKO JAURTIKETA June Kintana brontzezkoa Espainiako Absolutuan

Asteburuan Espainiako Atletismo Txapelketa Absolutua jokatu zen Bartzelonan. Emakumezkoen disko jaurtiketan, Barcelona klubeko Sabina Asenjok lortu zuen urrea (57,97 m). Grupompleo Pamplona taldeko June Kintana hirugarrena izan zen, 54,32 metroko jaurtiketarekin. Brontzezko domina lortuta, urte bikaina darama atleta bakai-kuarrak, markak gainditzen.

## TXIRRINDULARITZA Iruñeko Itzuliko bigarren etapa Etxarrin

Etxarri Aranazko festetan, laugarren urtez jarraian, jubenilen mailako Iruñeko Itzuliko etapa jokatu da. Zehazki, XXXI. Iruñeko Itzuliko 2. etapa hartu du Etxarrik asteazkenean. Txirrindulariek 17:00etan ekingo diote Etxarri Aranazko Sari Nagusiari.

Ibilbidea aurreko urteko berrera izanen da (89 km), Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa, Arbizu eta Ergoiena artean jokatu dena. Tartean, txirrindulariek bitan itzo beharko dute Lizarragako portua.

Iruñeko Itzulia asteartean hasiko da, La Morean, eta larunbatean bukatuko da, Iruñeko El Redinen. Aralar eta Burunda klubeko taldeak ahalik eta lan onena egin eta aurrean egoten saiatuko dira.

Bestalde, Lakuntzako festetan, laugarren urtez jarraian, kadeteen mailako lasterketa jokatu da. Aurten agorriaren 28an izanen da proba, astelehenarekin, 17:00etan.



GUAIXE

## Futbol campusaren 2. txanda

**FUTBOLA** Sakanako Udako Futbol Campusaren bigarren txandan, goizeko 09:30etik 14:00ak bitartean, 2002an, 2003an eta 2004an jaiotako 19 neska-mutiko ari dira futboleant trebatzen Dantzalekuko futbol zelaian, lokin Lobo eta Aitor Lara monitoreekin. Teoria

eta praktika uztartuz, euren adinera egokitutako formazioa jaso dute futbolari gazte sakandar hauek. Horretaz gain, atzo, ostegunean Donostiara irteera egin zuten, Anoeta futbol zelaia gertutik ezagutzeko. Gaur despidituko dute jarduna.



UTZITAKOA

## Sakandarrak bikain Txuman

**TXIRRINDULARITZA** Asteburuan kadeteen mailako VI. Txumaren Nazioarteko Hiru Egunak jokatu dira, Bizkaian. Nafarroako selekzioarekin bost sakandar aritu dira, lau Aralar klubekoak eta bakarra Burundakoa. Aitor Alberdi 16.a sailkatu da, probako bigarren euskalduna, Igor Arrieta 36.a, Iker Mintegi 50.a, Urko Gorriti 79.a eta Inhar Astiz 85.a.

non  
erabili

### GERTU SAKANA

ALTSASU

%10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako

### BEA ESTETIKA

IRURTZUNI

%10eko deskontua, Gandiva produktuetan

### ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea

### IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuarekin txupitua doan



Ziordia taldea. Etxekoak finala jokatuko dute Ingenierias Iradiren kontra. UTZITAKOIA

## Ziordia eta Iradi, Ziordiko Txapelketako final handira

**FUTBOLA** I. Ziordiko Futbol Txapelketako finala igandean erabakiko da, 18:00etatik aurrera, Ziordiko txipudian

1. Ziordiko Futbol Txapelketako irabazlea nor den igandean jakingo da. Aurreko asteburuan finalerdiak jokatu ziren. Lehen partidaren txapelketako lehen fasean puntu gehien lortu zituen Ingenieria Iradi taldeak 5 eta 4 irabazi zion Irurtzungo Futsal Sakana taldeari. Bigarren finalerdian, berriz, Ziordia taldeak 6 eta 3 hartu zuen menpean.

Hortaz, igandean Ziordiak eta Ingenieria Iradi jokatuko dute I. Ziordiko Futbol Txapelketako final handia. Baina lehenago, 3. eta 4. postuak erabakitzekeo partida jokatuko dute Futsal Sakana eta Auzomotojorik taldeek.

Txapelketa antolatzearekin batera diru bilketa egin dute Dravet fundazioaren alde. 485 euro jaso dituzte eta bildutakoa Dravet fundazioko ordezkariari emango diete finaleko jaialdian.

### Etxarrin bihar finalak jokoan

Etxarriko Gazte Asanbladak antolatutako areto futbol txapelketako finalak bihar, garilarren 29an, larunbatean jokatuko dira, Etxarriko festen hasierako txupinazioa baino lehen, goizeko 10:30etik aurrera. 3. eta 4. postuetako finala jokatu da aurretik eta, ondoren, final handia.

### Lakuntzako txapelketa martxan

Biltoki izena hartu du Lakuntzako txapelketak. Besteak beste, Karrotillo, Los Suaves, Irrikiziyuek, Kaimanak, Tximistak eta Biltoki neska taldeak dabilta lehian. Finalak Lakuntza festetan jokatuko dira.

## Ziordiko finalak

Igandean I. Ziordiko Futbol Txapelketako finalak egongo dira jokoan

### Finalak

#### • 3. eta 4. postua

(igandean, 18:00etan):

Futsal Sakana –  
Auzomotojorik

#### • Final handia: (igandean, 19:00etan):

Ingenieria Iradi – Ziordia

### Finalerdietako emaitzak

- Ingenieria Iradi 5 – Futsal Sakana 4
- Ziordia 6 – Auzomotojorik 3

# 7 talde 3x3 Ziordia Saskibaloitako Torneoan

**MENDIA** Igandean jokatu da, goizeko 10:00etatik aurrera, Ziordiko txipudian. 7 taldeak bi mailatan lehiatu dira. 12:00etan tiro libreen txapelketa jokatu da eta, ondoren, torneoko finalak. Bukaeran auzatea izango da bildutako denondako

Ziordiko Udalak, Kirol Batzordearen laguntzarekin, 3x3 Ziordia Saskibaloitako Torneoa antolatu du igandeko.

21 saskibaloitako jokalarik eman dute izena eta 7 taldetan banatu parte hartuko dute. 4 talde 2004an, 2005ean eta 2006an jaiotako neska-mutilen mailan lehiatu dira, eta 3 talde 2007an, 2008an eta 2009an jaiotako mailan. Honakoak dira taldeak: 1 taldea, gorria (Imanol, Asier eta Javier), 2 taldea, beltza (Iñigo, Joy eta Alejandro), 1 taldea, urdina (Egoitz, Naroa eta Endika), 2 taldea, berdea (Lander, Igor, Xabier), 3 taldea, beltza (Ariane, Izaro eta Nahia), 3 tal-



Ziordian saskibaloian. UTZITAKOIA

dea, urdina (Aimar, Carla, Iraixe eta Aritz) eta 4 taldea, berdea (Joseba, Atakil eta Yoel).

### Jaurtiketa libreen txapelketa

Torneoan hasieran ligaxka eta ondoren kanporaketak jokatu dira, goizeko 10:00etatik aurrera. Partidak 15 puntura jokatu dira.

Atsedenaldira moduan, eguerdian, 12:00etan jaurtiketa libreen txapelketa jokatu da eta ondoren, finalak jokatu dira. 12:40ean 3. eta 4. postua erabakitzekeo finala jokatu da eta 13:00etan, final handia. Bukaeran, auzate ederra prestatuko dute bildutako guztiendako.

## Pirinioetan bikain

**MENDIA** Etxarri Aranazko Larrañeta elkarrekin Pirinioetako irteera antolatu zuen garilarren 15ean eta 16an. Larunbatean Panticosara iritsi ziren eta Pico Verdetik Pueyo arteko bidea egin zuten mendizaleek. Bertan gaua eman ondoren, hurrengo egunean Pueyotik atera eta Biescas izan zuten helmuga. Urtero moduan, txango zoragarria izan zen.



PEDRO GONZALEZ

### VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan

### EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Makillaje ukitua doan

### GK KOMUNIKAZIOA

ALTSASU

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan

### XAGU INFORMATIKA

ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketan eginez gero





Garikoitz Goñi eta Iñaki Arive (Renault Clio Sport) Lesakako Rallysprintean ibili ziren. Irurtzun-Arakilgoan ere ariko dira. UTZITAKOIA

# I. Irurtzun-Arakil Rallysprinta: 3, 2, 1...

**AUTOMOBILISMOA** Agorrilaren 5ean jokatu da, larunbatarekin, Nafarroako Automobilismo Federazioak eta Sakana Motorsport eskuderiak antolatuta. Nafarroako Asfalto Gaineko Rally Txapelketarako eta Junior Txapelketarako baliagarria izango da

Sakana Motorsport eskuderiak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak I. Irurtzun-Arakil Rallysprinta antolatu dute agorrilaren 5erako. Proba Nafarroako Asfalto Gaineko Rally Txapelketarako eta Nafarroako Junior mailako Rally Trofeorako baliagarria da.

Egunotan antolatzaileak burubelarrari dabilta antolaketa lanetan. Agorrilaren 5ean, goizeko 08:00etatik aurrera autoek egiaztapen tekniko eta administratiboak pasa beharko dituzte Irurtzongo plazan. Autoen asistentzia gunea Irurtzongo kiroldegiko parkingean egonen da. Lehen parte hartzailea 12:15ean aterako da Irurtzongo plazatik, baina probari 13:00etan ekingo zaio. Ibilgailuek 12,5 kilometroko gunea hirutan gainditu beharko dute, guztira 37,8 km osatuz. Bukaeran sari ematea izango da Irurtzongo plazan, 19:30etik aurrera.

Sakana Motorsportetik adierazi digutenez Euskal Herriko

eta Errioxako pilotuak lehiatuko dira, eta akaso Asturiaskoren bat ere animatuko da. Jakina, Sakanako pilotuak eta kopilatuak bertan arituko dira, ikuskizuna eskaintzen. Aurten estreinatuko den I. Irurtzun-Arakil Rallysprinta urtero antolatzea da antolatzaileen asmoa.

## Ibilbidean garilaren 30ean aurkeztuko dute

Antolakuntzak igandean, garilaren 30ean publikatuko du probak izango duen ibilbidea eta Road-Booka (www.fenauto.com). Hain zuzen ere, ibilgailuek I. Irurtzun-Arakil Rallysprinteko eremua probatzeko eta entrenatzeko eguna garilaren 30a izango dute, 10:00etatik 19:00etara.

## IGANDEAN AURKEZTUKO DUTE IBILBIDEA. IZENA EMATEA BIHAR DESPEDITUKO DA

## Izena ematea

Rallysprintean izena ematea zabalik dago garilaren 29ra arte, [www.fotomotor.es](http://www.fotomotor.es) web orrian.

## Argazki lehiaketa

Probarekin batera, I. Irurtzun-Arakil Rallysprint argazki txapelketa antolatu dute. Argazkilari bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu, agorrilaren 15a baino lehen, [chapigo@gmail.com](mailto:chapigo@gmail.com) e-postara. Bi pertsonendako afaria irabaziko du txapeldunak.

## Sakandarrak Lesakako Rallysprintean

Asteburuan Lesakako Rallysprinta jokatu zen. Azkarrenak Joseba Beola eta Jose Luis Iratzoki izan ziren (Lancer EVO X, 23:58). Roland Holke pilotuarekin osatu zuen taldea Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrak (Peugeot 208 Vti) eta zazpigarrenak sailkatu ziren (26:09) eta Garikoitz Goñi eta Iñaki Arive (Renault Clio Sport) 15.ak (27:07).



Getaria-Zarautz Zeharkaldiak irudi ikusgarriak utzi zituen. UTZITAKOIA

## Mikel Perez de Eulate lehen nafarra Getaria-Zarautz igerian

**IGERIKETA** 1.953 igerilarik osatu zuten Getaria eta Zarautz igerian lotzeko proba, 12 sakandarrak tartean

Igandean jokatu zen XLVII. Getaria-Zarautz Zeharkaldia igerian. Getariatik aterata, igerian Zarautzera iristea zuten erronka irteera hartu zuten bi mila igerilariak, igerian 2.850 metro osatuz. Horietatik 1.953 igerilariak lortu zuten bi herriak batzea.

Iñaki Salaberria irundarra izan zen guztien artean azkarrena (31:47). 12 igerilari sakandarrak lortu zuten proba bukatzea eta azkarrena Mikel Perez de Eulate izan zen. Etxarriar gaztea ikusgarri aritu zen eta 42.a iritsi zen Zarautzera (36:36), probako lehen nafarra.

## Sakandarrak Getaria-Zarautzen

42. Mikel P. de Eul. (Etx):	36:36
378. Iñaki Gallego (Alts):	43:59
543. Ioseba Razkin (Lak):	46:02
695. Mikel Tainta (Alts):	48:10
824. Jesus Albeniz (Uhar):	49:35
987. Juanxu Zabala (Arb):	50:59
1.024. Aitor Azpiazu (Etx):	51:19
1.037. P. Aldasoro (Olaz):	51:27
1.249. Elena Guzman (Alts):	53:57
1.287. Josu Ducar (Arb):	54:23
1.397. Jaione Astiz (Arak.):	56:21
1.845. Ioni Araña (Arb):	1:07:52



UTZITAKOIA

## Ekhi Congil EC Unicycling-era

**MONOZIKLOA** Garilaren 28tik agorrilaren 6ra bitartean Europako Monoziklo Txapelketa jokatu da Herbehereetako Sittard eta Geleen hirien artean, EC Unicycling proba famatua. Bertan parte hartuko du Ekhi Congil Mendiola etxarriarrak. Monozikloan ibiltzen direnen bilgune nagusienetakoa da EC Unicycling, munduko lasterketa ezagunenetakoa.

# Zure udako argazkiak saria izan dezake!

Baldin eta Guaixe Udako Argazkia 2017 lehiaketara aurkeztzen baduzu. Hirugarrenez, [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) web orriaren atal berezi baten bidez parte hartzeko aukera izanen da. Publikoaren eta epaimahaiaren sariak banatuko dira irailean

## SAKANA

Jende klase adina opor mota daude: lasai hartzen dituztenak, eguneko minutu guztiak zuku-tzen dituztenak, luzeak, motzak, hemen, hor edo han, urrutian. Oporrak azken batean. Uda partean dugun aisialdiaz gozatzekoan maiz oroigarriak jasotzen ditugu, argazki moduan, gure kamera, tablet, telefono adimendun edo dena delakoetan.

Guk horiek partekatzen eta Guaixe Udako Argazki Lehiaketa 2017an parte hartzen gonbidatzen zaitugu. [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) web orriaren sortutako atal berezian sartu eta zure argazkia igotzea bezain erraza da. Sakandarrek argazkiak igo ahala haiek argazki galeria moduan ikusgai jarriko dira. Gero onenak aukeratzeko garaia etorriko da. Zuen botoekin aukeratutako argazkiaren egileak opari sorpresa eskuratuko du. Epaimahaiaren saria, berriz, Costa Dauradan hiru lagunendako (bi nagusi eta ume bat) astebeteko egonaldia da.

## Oinarriak

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkeztu ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta herria; harremane-



Helena Nuinek jaso zuen izazko saria GUAIXE

tarako telefonoa eta argazkiaren inguruko azalpena (non eta noiz aterata dagoen). Argazkiko gaiak iradokitako esaldiren bat ere idatzi daiteke).

Argazkiak bidaltzeko epea agorriaren 1etik 31ko 12:00ak arte (biak barne) izanen da. Argazkiak [guaixe.eus](http://guaixe.eus) webgunean lehiaketarako atondutako formularioaren bidez bidaliko dira. Argazkiek gehienez 5 MB izan beharko dute. Argazki guztiak [guaixe.eus](http://guaixe.eus)-ko argazki galeria batean egonen dira ikusgai. Sakana jaio edo bizi den orok

parte hartu dezake, beti ere, 16 urtetik gora baldin badute. Aurkeztzen dituzten lanak argazkiek jatorrizkoak, originalak, eta argitaratu gabeak izan behar dute. Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkeztu daitezke. Udako argazkiak izanen dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

Irabazleak zein diren irailaren 15ean jakinaraziko dugu, Guaixe astekarian eta [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)-en. Web orriaren daude lehiaketako oinarriak osorik.



Erriberriko egonaldiko Hoidek-eko partaideak, erdian Azpilikueta. UTZITAKOIA

## Azpilikueta Erriberri antzezlan baten muntatze lanean

Hoidek Producciones taldeko kideak atzo hasi eta agorriaren 5era arte ariko dira proiektu berriaren lanean

## ALTSASU

Hoidek Producciones taldea egoitza artistikoa egiten ari da Erriberriko Antzerki Jaialdiak irauten duen bitartean, herriko ikastetxe publikoko erabilera askotako aretoan. Susana Gutierrezen zuzendaritzapean, Susana bera, Vidal Ruiz eta Eva Azpilikueta aktore altsasuarrak ariko dira lanean. Asier Zabalzak sortuko du musika. Ana Ibañena izanen da eszenografia eta Bailamos RyRena koreografia. Carlos Sotelo Enriquezek, berriz, testua egokituko du.

Kixote laneko Martzela artzainaren pasartearen berrirakurketa moderno baten gainean eraikiko du. Espainiar literaturako lehen testu feministetako zat hartzen den horretan oinarrituta II. Mundu Gerran AEBko emakumezkoek bizitako esperientziatara egokituko dute. Izan ere, gizonzkoak frontean

zeuden bitartean gerrako industriako lanpostuak bete zituzten. Hainbat urtez gizonzkoen lan berak egin zituzten, inolako eragozpenik gabe. Baina gerra bukatzean gizarte matxistak ezarri zuten jardunetara bueltatzera behartu zituzten, lanpostuak utzita. Hoidek-eko lantaldeak Marcelaren istorioa eta ibilerak XX. mendean kokatu nahi ditu. Horrek, jatorrizko istorioaren eraldaketa estetikoak ekarriko du berarekin.

Agorriaren 5ean bukatuko du taldeak egoitza artistikoa eta publikoari behin-behineko antzezlan aurkeztuko dio, azalpenarekin eta jatorrizkoa jokatuz. Bigarren urtez jarraian, Erriberri lanerako egoitza bat eskainiko dio Nafarroako antzerki talde bati, ikerketarako laborategi gisa planteatuta, sorkuntza bultzatzeko eta begirada berriak lantzea sustatzeko.

**Txalaparta**

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

Ogiaren artisauak

**PORTUKO** okindegia

ETXARRI ARANATZ; 948 460 988  
ALTSASU; Denda; 948 563 822 • Lantegia; 948 467 153

[www.pescaderiamariaeugenia.com](http://www.pescaderiamariaeugenia.com)  
Arratsalde zabalik

**maríaeugenia**  
Arrainak

**Lortu deskontuak gure txartelarekin!**

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725



Juanjo Olasagarre bere azken liburuaren aurkezpenean UTZITAKOIA

# "Poz aldrebesa. Gustatzen zait liburuaren izenburua"

JUANJO OLASAGARRE IDAZLEA

Arbizuarra letren plazan bueltan da Poz aldrebesa (2017, Susa) liburuarekin. Han da Lekunberri Aranatz. Baita zaintza, dolua, harremanak, gaytasuna edota gatazka ere

ARBIZU

**Nola heltzen zaio 416 orrialdeko liburu baten idazketari?**

Nik hasiera-hasieratik, duela bospasei urte, oso garbi nuen txandaka joan behar zuela liburuak, iragana-oraina. Denbora nola pasatzen den erakusteko balio du. Nik, berez, idatzi egiten dut eta totxo handi bat daukat. Lehendabiziko bertsoiak 30 kapitulu zeuzkan. Totxo oso lodia zen... Gero lagunei pasatu eta hemen akatsa, erritmoa...

Moztu, itsatsi, istorioarendako garrantzitsua ez zen informazioa kendu... Uste dut hobeki gelditzen dela. Dena dela, nik ez dut egin izan nahi intrigan oinarritutako nobela bat. Beno, bai, intrigatxo bat badago bukaera

**"MINA ETORRI BEHAR DAKIZU. SUFRIMENDUA ZER DA? ZER EGITEN DUZUN MIN HORREKIN".**

aldera. Gehiago zen mundu ikuskera bat adieraztea, baita bizi-modu batzuk ere.

**Beraz, hasieratik garbi denboran joan-etorriak egonen zirela?**

Lehenengo bertsoarekin argitaletxeko batek esan zidan: saltoka ibil beharrean zergatik ez duzu kronologikoki kontatzen? Nik gelan post-itak nituen, horiak eta arrosak. Konbinazioak. Eta, gainera, bien arteko loturak. Nik hori argi neukan. Neurri batean bikote baten eraikuntza nola egiten den, identitate ba-

tena, eta bukaera. Bi plano horiek kontrastatzeko ongi ikusten nuen egitura hori.

**Batek galdutakoa gehiago nabarmentzeko balio dute denbora-saltoek.**

Bai, hori egia da.

**Liburuak badu bere soinu banda, baita filmografia bat ere.**

Nik uste dut Joseba doluan dagoela eta, gainera, nahiko neurotikoa da. Nolabait dolua gainditzeko kanten laguntza garrantzitsua iruditzen zitzaidan. Giro bat sortu eta baita pertsonaiak horien aurrean erantzun ere. Batendako dolu garaian musika horiek denak salbazioa dira. Soinu bandan, gainera, bat eskapatu dakit. Gauza luzeak ibiltzearen problema izaten da informazio asko dagoela eta, orduan, Amalia Rodriguesen fado bat ez dut sartu. Eta ikusten duten pelikula da, nolabait, euren bikote harremanaren hasieran... armairua, euren afektuak, eskua hartzeagatik lotsatzen dira... horren inguruko hausnarketa bat da.

**Aztera ere, Lekunberri Aranatz agertzen da.**

*Ezinezko maletak* (2004, Susa) liburuan nahi nuena kontatzeko Sakanaren irudikapena izan zitekeen herri bat sortu nuen. Hurrengo nobelan ere, erreferentzia moduan, ongi. Eta oraingoan atera dut. Eta hurrengoan ere, nolabait, aterako da. Zergatik? Iruditzen zaidalako, beno, hemendik joan dira batzuk, gelditu dira batzuk...

**Ezinezko maletak-en Londres izan zen moduan, oraingoan Bilboren eta Iruñearen aldean periferia izatera pasa da Lekunberri Aranatz. Baina, beti presente.**

Nik uste dut *Ezinezko maletak* liburuan oso presente dagoela. Lekunberri Aranatz hor sortu zen. Nahi baduzu poesia liburuetatik ere heldu da neurri batean. Beti Lekunberri... muga batzuk dauzka: landa eremua eta abar. Orain erreferentziak zein ziren, gurasoak hemengoak dauzkatela. Mikrokosmos bat sortzea interesatzen zitzaidan. **Zaintza, dolua, harremana... eskua emanda ageri dira.**

**"BADIRUDI BUKATU DELA DOLURIK EGIN GABE. EGITEN EZ BADUZU BUELTATZEN DELA DIRUDI"**

Lehendabizi da harremana, gero dolua eta gero zaintza. Lehena ere egonen zen zaintza. Bihotzekoa, memoria galtzea... Ez da nik asmatutako istorio bat. Nire bi laguni hala gertatu zitzaien 2006an, eta horrela bizi dira. Biak oso lagunak ziren eta haletako batekin asko hitz egin dut doluari buruz. Doluak denok pasatzen ditugu. Egoera interesgarri bat iruditzen zitzaidan. Nire lagun honek, eta Josebak, erabaki bat hartu behar dute.

**Nahiak eta ezinak elkartzeko dira.** Bai. Eta neurri batean, orain arte zeinek egin du zaintza? Gure birramona, amona, ama... Euren zaintza lan hori ez zen erabat askea. Ez zuten soldatarik, segur aski garaiko gizarteak ez zien onartuko gizona utzi eta joaten, baldintzak ere ez zeuden uzteko (erresidentziak), sozialki ere ez zegoen onartuta. Baina Josebak, neurri batean, eskubidea badu. Bikotekideak, familia bezala, hartu eta utz ditzakezu. Hori da teoria, behintzat. Zure bizitza edo zaintzen ari zarenarena.

**Hori erabaki bitartean, borrokan etsiturik, berak nahi bezala bizitzeko askatasunik ez duelako eta patuaren eta zoriaren kontra borrokan.**

Pasatzen zaio. Jendeak liburu nahiko etsigarria dela esaten didanean, bai, baina, bukaeran esperantza pixka bat badago: hau da nire bizitza eta nik honen segituko dut!

**Joseba jabetu egiten da pasa denaz. Gaitzak zaildu egin du.**

Bai. Nik teoria bat daukat: pasako bagina bizi honetatik sufritu gabe, hobeki; baina aldiro nonbaitetik etorri behar zaigu. Nik uste dut sufrimenduaren kontuan hoberena dela onartzea eta ahalik eta hobekien eramatea.

**Asko sufritzen dute pertsonaiek.** Haruki Murakami, ez da nire idazlerik maiteena, baina harrek esaten du: mina ekidin ezina da, baina sufrimendua ez. Mina etorri behar dakizu. Sufrimendua zer da? Zer egiten duzun min horrekin. Josebari mina etortzen zaio liburuan zehar, bere minaren onarpena dago. Behin onartuta ez duzu sufritzen. Iruditzen zait.

**Zaintze lanetan Joseba jarri duzu, feminizatuta dagoen arlo bat.**

Hori interesatzen zitzaidan. Lehen esandakoa, zaintza emakumezkoek egin dute. Baina beti geldituko den zalantza da norai-



Juanjo Olasagarre Arbizon GUAIXE

no egin duten berez edo noraino euren bizi-baldintza sozio-ekonomiko, kulturalak behartuta. Gainera, interesatzen zitzaidan ere ez bakarrik kontatzea gaytasunaren alde friboloa. Niri oso inportantea iruditzen zait.

**Gaytasunean zahartzaroarekin zer gertatuko den kezka bat badago.**

Bai. Jende askori pasatzen ari zaio Madrilen eta horrela, armairutik atera oso gaztetan, baina adinduen-egoitzara sartzean, berriro ere armairura. Ez dakizulako norekin topo egiten duzun. Manchesterko Udalak gay eta lesbianendako zahar-etxea egin du. Madrilen ekimen pribatu bat dago. Ez da gizartea banatzea. Baina zu bizi osoa "liberatua" izan ondoren berriro armairura sartzea...

**Gaytasuna, atzoko eta gaurkoaren isla opatuko du irakurleak.**

Denboran saltoka ibiltzeak, neurri batean, balio du dena kontatu gabe, jendeak ikusteko gauzak nola izan diren. Nola gay klase batzuek nahi zuten mundua aldatu haien "marikitismorik", hori baitzen hitza. Eta bukatu dugu jenderik integratuena izaten eta bakarrik larrua jotzen eta modan interesatuta. Hor tartean zer pasatu da? Kontakizuna denboran saltoka egitean, bien kontrastea, jendeak, beharbada ez arrazoi guztiak, baina zer pasatu den ulertuko du: neoliberalismoa, kapitalismoa eta abar.

**Azken batien, gizartearekin batera aldatu da mugimendua.**

Bai, zoritxarrez.

**Ética marica aipatzen duzu.**

Neurri batean tranpa egiten dut. Paco Bidarteren liburu bat da, 2005ekoa edo. Nik uste dut kontatzen ditudan garai horietan Ética marikaren hori bazegoen, baina airean zegoen. Oraindik ez zegoen nahikoa hausnarketa, sortzen ari zen. Nik uste dut ni egon nintzen bi urte haietako gauzarik interesgarriena zela Euskal Herriko gay mugimendua, Espainiakoa ere neurri batean, San Franciscen, Los Angelesen eta Parisen pasatzen ari ziren gauzak zuzenean jasotzen zituen. Hilabeteko edo hiru asteko atzerapenarekin. Estatuko talde iraultzaile gay horien artean bazegoen madrildar bat Parisen ikasten zuena eta hura Parisko Act-Up-ekoa zen. Hark informazioa, eztabaidak, proposamenak itzuli... Hori oso bizia zen. Garai horretan zer pasatzen

ari zen: HIESaren epidemia ikaragarria, AEBko gobernua hori marikoen kontua dela esanez, homofobia ikaragarria... Act-Up taldea New Yorken sortu zen, eta gero San Franciscen eta gero Parisen. Hirurak ziren oso mugimendu indartsuak. Haiek hasi ziren haien gaixotasuna eta marika hartu eta betetzen. Hortik sortuko da gero Queer esaten dena. Gauza bera da, iraina eta estigma jaso eta buelta eman.

**Teknologiak gayen harremani ekarri dien eragina aipatzen duzu.**

Teknologiaren munduan iruditzen zait ez dagoela desberdintasunik hetero eta gayen artean.

**Aplikazioek armairutik ez ateratzeko ere balio dute. Jende bat oso eroso omen dago hor.**

Bai. Gay baten helburua baldin bada larrua jotzea eta gero, amets moduan, ea printze urdina agertzen den. Ez duzu. Edo, agian, printze urdinarekin zortzi urte bizi ondoren...

**Bikote irekia. Fideltasunaren eta leialtasunaren arteko haria luzatu duzu.**

Hiru belaunaldi aurrerago Jean Paul Sartrek eta Simon de Beauvoirrek horrela funtzionatzen zuten. Dena dela, niri iruditzen zait gay munduak bikote irekiaren kontua jendarteratu duela. Batzuk, zeren beste batzuek ezin dute ikusi. Iraupen luzeko bikote gay askok harreman irekia dute larrua jotzeko kontuetan. Are gehiago, orain lesbiana gazteek, eta gazteek ere bai, polimaitasuna dute: harremanak hiru-lau jenderen artean. Zer edo zer asmatu beharko da. Amatasun subrogatua. Niri oso tristea iruditzen zait bi gizonak zerbait erostera joan behar izatea hirugarren mundura. Zergatik ezin duzu asmatu emakumezko lagun batekin haurra izatea, hirurek nahi badute. Edo bi neskekin. Zergatik ez? Gauza horiek zaila dira, baina ezkontza tradizionalak ere...

**Axi edo Joseba emakumeak balira, lesbianak, desberdina lirarteke liburuko gogoetak?**

Ez lirarteke berdina izanen.

**Euskal gatazka. Oso presente, beste behin. Baina konponbidera begira jarri zara.**

Nire kezka da badirudiela bukatu dela dolurik egin gabe. Eta, klaro, doluak egiten ez badituzu ematen du bueltatu egiten direla. Bi teoria daude. Jesus Egi-gurennek (PSE-EE) esaten zuen

ez dela gogoratu behar. Beste batzuek esaten dute baietz. Judith Butler filosofo amerikarrak esaten du dolutik gizartea berregin daitekeela. Niri iruditzen zait krisiarekin eta nekearekin ez dela gelditu dolua irudikaturik. Azken finean dolua irudikapen bat da, zurea eta joandakoena. Hego Afrikan horrela egin zen: bi urteko amnistia prozesu bat zegoen; ustez norbait hil zuen polizia txuria bazinen amnistia eskatu, hori gertatutako tokira epaile talde bat joaten zen eta hainbat kasuren epaiketa kolektiboa izaten zen. Pare batean izan nintzen. Horrekin, astero telebista eta irrati saio bana egiten ziren. Hori da dolua, ez? Zer pasatu da, zer gertatu da, barkamena eskatu behar dutenek eska dezatela, besteek eman diezaiotela edo ez diezaiotela eman eta, legedi aldetik, egon dadila ixteko halako zerbait. Hori ez da hemen gertatzen ari eta bueltatuko da. Espainiako estatuan gerra zibilaren dolua egin da? Ez. Hori jarreretan, portatzeko moduetan... ikusi egiten da. Niri garrantzitsua iruditzen zait. Zergatik da PP den bezalakoa? Inoiz ez duelako barkamena eskatu. Bost axola zaiolako jendea ezpondetan egotea. Bueltatu egiten da. Eta nik uste dut ekonomikoki ere pagatu egiten dela.

**Dolu premia hori azpimarratu nahi izan duzu, beraz.**

Ez bada orain egiten bueltatuko da. Nik uste dut 1936koa orain bueltatzen ari dela. PP-koak-eta harritu egiten dira: jendeak zergatik hitz egin nahi du gerraz? Aizu, hitz egin beharra dagoelako! Zer pasatu zen, zer ez zen pasatu.

**Estrapolatu daiteke. Protagonistak Euskal Herria doluan izan daitezke?**

Uste dut gehiegi izanen litzatekeela. Joseba Gabilondok lehen-dabiziko bertsoia irakurri ondoren esaten zidan ideia hori indartu behar nuela. Badaude bi esaldi edo iradokitzen dutenak hori. Nik ez diot irakurleari esanen zer interpretazio egin behar duen.

**Hurrena prestatzen edo atsedena hartzen?**

Denboraldi bat alferkerian daramat. Gertatzen dena da, jarri edo sartu arte, nobela kostatu egiten da. Gero ikusi behar duzu, 50 orrialde eta ea fundamentu pixka bat duen ala ez.

**Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**

# “Aurten gazte asko gerturatu dira eta haiek hartuko dute konpartsan lekukotza”

Beltza Zuria, Beraxko, Txinerratsa eta Kixkimau erraldoiek bihar eginen dute estreinaldia, Etxarri Aranazko festak lehertu eta berehala. Erraldoiak berreskuratze lan handia egin da eta konpartsari merezitako aitortza egingo dio herriak

**Larraitx Amadoz Lazkano**  
ETXARRI ARANATZ

## 1 Zer dakizue Etxarri Aranazko Erraldoien historiaren inguruan?

Etxarri Aranazko lehen erraldoiak Errege Katolikoek bikotea izan ziren. Hogeita bi urtez egon ginen erraldoi hauen konpartsan, gu bigarren belaunaldia izan ginen, aurretik Etxarriko adineko jendea ibili zen. Udalarekin harremanetan egon ginen erraldoi berri batzuk egiteko ideia proposatu baikenien, baina ez zen aurrera atera. Eta, urteen poderioz uztea erabaki genuen.

## 2 Nondik lortu zituzten lehen erraldoi horiek?

Bere garaian, lantegi batean egin zituzten. Hainbat modelo egiten zituzten herrietan saltzeko eta, Errege Katolikoak aukeratu zituzten Etxarri Aranaztera ekartzeko. Vicente Urmeneta, Basilio Arruabarrena eta Justo Jaka izan ziren hau dena martxan jarri zutenak. Aipatutako hiru hauek konpartsako lehen urteetan egon ziren. Urte batean gure koadrilari erraldoiekin aritzeko gonbidapena egin zigu-



Etxarri Aranazko Erraldoien Konpartsa LARRAITX AMADOZ LAZKANO

ten eta, harrezkeroztik, hogeita bi urte eman genituen.

## 3 Noiz erabaki zenuten uztea?

2000. urtean, gutxi gorabehera. Urte asko generamatzen konpartsan eta azkenean alde batera uztea erabaki genuen.

## 4 Nola sortu da erraldoi berriak egitearen ideia?

Etxarriko Udalak biltegi batean gordeta zituen erraldoiak eta urteekin zahartzen ari ziren.

Batez ere udalaren egitasmoa izan da berreskuratzearen lana. Ondoren, jende desberdina gehitzen joan gara ekimen honetan, eta ikusten duzun moduan geroz eta jende kopuru handiagoa gaudu. Konpartsako kide ohiak, gazteak, jende asko gerturatu zaigu eta oso pozik gaude erantzunarekin.

## 5 Zein dira erraldoi berriak?

Bi erraldoi guztiz berriak dira, eta beste biak egiteko, erral-

doi zaharrak aprobetxatu eta birziklatu egin ditugu. Osotara festetan lau erraldoi aterako ditugu aurten. Zaharren buruak eta besoak erabili ditugu eta irudia berri egin diegu.

## 6 Zer irudikatzen dute erraldoiek?

Beltza Zuria, XIII. mendeko Etxarriko emakume dotorea da, Beraxkoren andrea. Irantzuko monasterioko dokumentu batean ageri da bere izena. Beraxko, berriz, Etxarriko gizon dotorea dugu, Beltza Zuriaren senarra, XIII. mendekoa ere bai, eta senar-emazte hauek abesbatzako kideen jantziak daramatzate. Txinerratsa, Etxarriko imajinario kolektiboko sorgina dugu, beldurra eragin lezake, baina beheko basoko emakume heldu jakintsua da. Eta bukatzeko, Kixkimau Pintto, Etxarriko inauterietako pertsonaia da, aurpegia ikatzez belztua, zakuzko jantzia lastoz beteta, eta ttunturroa buruan dauka.

## 7 Zein dira birziklatu dituzten erraldoiak?

Beltza Zuria eta Beraxko erraldoi zaharrekin egindakoak dira, burua eta besoak aprobetxatu ditugu lehenago esan dugun moduan. Eta berriak, aldiz, Txinerratsa eta Kixkimau Pintto ditugu. Hauek duela hilabete batzuk egindakoak dira, eta herriar batzuen lanari esker bukatzea lortu dugu.

## 8 Noren artean egin dituzte erraldoiak?

Paola Ferrarrik, Txaro Garzian-diak eta Florencia Nilok egin dituzte, elkarlanean. Lehenengo udalarekin harremanetan egon ziren, materiala prestatzeko eta

eginkizunak banatzeko eta ondoren, erraldoiak egiten hasi ziren. Erraldoiak egiten bost hilabete inguru egon dira, eta oso lan polita izan da. Jantziak eta erraldoiaren egitura dena eskuz egin dituzte.

## 9 Jende berri asko sartu da konpartsan, ezta?

Bai, hala da. Orain arte konpartsan ibili garenok uzteko asmoa dugu, baina beti egonen gara prest laguntzeko, dantzatzen ere ibiliko gara, eta irakasten nola ez. Aurten, gazte asko gerturatu dira eta haiek hartuko dute konpartsan lekukotza. Erraldoien arintasunari garrantzi handia eman diogu, izan ere, erraldoia eramanez dutenak emakumeak dira gehienbat eta, horregatik, pisuaren kontua azpimarragarria izan da. Edozeinek eramateko modukoa egin nahi genuen.

## 10 Zein pisu daukate?

Uste genuena baino txikiagoa; beraz, pozik gaude emaitzarekin. Pisu handiena daukan erraldoiak 31 kilo dauka eta besteek zertxobait gutxiago. Oso arinak dira, eta eramateko errazak. Astean behin entseguak egiten ditugu, eta oso erosoak dira.

## 11 Noiz izanen duzue zuen estreinaldia?

Etxarriko festetako larunbatean aterako gara lehen aldiz. Printzipioz hori da antolatu dugun eguna, Udalak beste egunen batean ateratzeko proposamena egin digu, baina oraindik ez dugu erabaki. Horretaz gain, larunbatean erraldoi zaharren inguruko erakusketa bat egonen da udaletxean.

## Bazkide sarituak

- Joxepi Marquinez Arakama (Aitsasu)	- Jesus Razkin Mendinueta (Arbizu)
- Floren Beraza Gastesi (Irañeta)	Bianca Nieves Aldasoro (Arbizu)

**1. SARIA:**  
EKAINBERRI: 2 SARRERA  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN  
AQUARIUM: SARRERA BAT

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN  
AQUARIUM: SARRERA BAT

beleixeguaixe

## Bazkide sarituak!

### dastatu uda guaixe rekin

Arkangoa - Erkuden San Martin Gonzalez  
Arruzuko ostatua - Ana Kaiuela Iturriza  
Clinker - M<sup>a</sup> Cruz Mundiñano Orayen  
Biltoki - Ania Lakuntza Palazuelos  
Dantzaleku - Cristina Okariz Merino  
Iru Bide - Maite Miguel Zufiaurre  
Kaluxa - Amaia Iparragirre Mendia  
Olatzea - Amaia Zudaire Bengoetxea

beleixeguaixe